



ARGIA



Amets Arzallus Antia

“Bertso bakoitzak bizi garen garaiaren
lekukotasuna ematea zor du”

+ Txapelketari errepasoa Kepa Matxain eta Kattalin Minerren eskutik

» **ALBANO DANTE FRACHIN:** “MADRILGO TXOTXONGILO IZAN NAHI EZ NUELAKO UTZI DUT PODEM”

» **GLOTOFOBIA:** FRANTSESEK FRANTSES-HIZTUNAK MESPRETXATZEN DITUZTENEAN


» **NET HURBIL:** PARLAMENTARIAK LIMURTU BOTIKA GARESTIAK ERRAZAGO SALTZEKO



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Parlamentariak *Big Pharmak* pagatutako bisitan

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Ramon Etxezarreta
- 19 Zigor Etxeburua Urbizu Itxaro Borda
- 20 Irati Elorrieta



Azaroan utzi zion Albano Dante Fachinek *Podem Catalunyako idazkari nagusi* izateari. Kataluniako giro politikoaz hitz egin dugu harekin. (ARGAZKIA: JORDI BORRÀS)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ENEKO AIERBE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Gorka Pastor, konpositorea: "Ezin dugu hitz egin gure instrumentuarekin" / Reyes Ilintxeta
- 22 | 2017ko Bertso Txapelketa Nagusia: Amets Arzallusi elkarrizketa + txapelketari begirada / Kepa Matxain, Kattalin Miner
- 28 | A. Dante Fachin: "78ko Erregimena hausteko modu bakarra alderdi independentistak **bozkatzeara da**" / Saioa Baleztena
- 31 | Gizarte zibilaren borroka zaborretatik dator Libanon / Hegoi Belategi
- 34 | Philippe Blanchet: "Arazoa ez da linguistikoa, soziala eta politikoa **baizik**" / Mikel Asurmendi
- 36 | Ankiloglosia: Mini-hariaren eragina ahoan eta ahoskeran / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 44 | Martin Bidaur: "Ez dagoena bilatzea baino, dagoenetik eraikitzen saiatzea **gelditzen zaigu**" / Kepa Matxain
- 46 | Arte iruzkina: Jesus Olasagasti / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagora, S.A.L.

Ametzagaina Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametz interaktiboa, S.L.

Interneten: www.argia.eus

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel.: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

ARGIA KIDETZA:

Harpidetza lotuta egon beharrean, kidetza ARGIAren proiektua indartzera dago lotuta. Kideek, egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larren, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



OLATUKOOP EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



PANORAMA

Bake faltsuaren amaiera Palestinan

Donald Trumpek Jerusalem Israelgo hiriburu izendatu du, 1967an israeldarrek hiria bortxaz okupatu zutenetik, lehen aldiz historian. Sionismoa pozarren eta Ekialde Hurbileko eragileak dardarka ipini ditu, eta hiltzorian zen bi estatuen konponbidea gorputegira bidean jarri. Azken urteotako nazioarteko negoziazio prozesuen bultzatzaile nagusi izan da AEB. Horren bueltan kateatu ditu ustelkeriak jotako politikari palestinarrak urte luzez, Israeliek eguneroko ekintzen bitartez, Apartheid sistema betikotu bitartean. Jerusalemgo okupazioari –Palestinako askapen nazionalaren ikur– babesa ematea bide antzu horren amaiera sinbolikoa izan daiteke, azken urteotako bake faltsuaren akabera. Irudian: Trumpen erabakiaren biharamuna Gazan.

Argazkia: Ezz Zanoun (Active Stills kolektiboa) · Testua: Axier Lopez



t “Igande eguerdia, Durangoko Azoka erdi hutsik. Ze ondo! Eta ze gaizki... liburuak lasai begiratzeko denbora ematen du eta espero baino gehiago erosi dut...”

@probatxoa

t “30 urtetan lehengo aldiz, Txalapartako taldearen zati batek Durango utzi du Azokaren erdian. Helmuga... Pariseko manifestazioa”

@txalapartatik

t “Bukatu da 52. edizioa ofizialki lagunok. Azokaren antolatzaileek esan bezala, jarrai dezagun euskal kultura urte osoan bultzatzen”

@m_unanue

t “Bost egunez, Sormenaren Lurraldeak bizia hartu du, Durangora gerturatu zareten milaka bisitari eta sortzaileei esker!”

@durangokoazoka



@ADIC_ARC

Europari esnatzeko eskatu diote milaka kataluniarrek Bruselan

Andoni Mikelarena

@andonimik

Kataluniako Biltzar Nazionalak (ANC) eta Omnium Cultural elkarteek deituta, manifestazioa egin dute Bruselan, Europaren bihotzean, “esnatu Europa, Kataluniarentzat demokrazia” lelopean. Belgikako poliziaren arabera, 45.000 lagun bildu ditu deialdiak, eta antolatzaileek asko espero zituzten arren, aurreikuspenak gainditu egin dira eta jendetza dela-eta, ibilbidea aldatu behar izan dute.

Denek eraman dute zerbait horia gainean, antolatzaileek eskatu bezala, eta oihurik errepikatuenak Kataluniako preso politikoen askatasuna eskatu du. Jordi biak, Oriol Junqueras eta Joaquim Fornek

espetxean jarraitzen baitute. Manifestariak 155. artikulua eta Espainiaren demokrazia-eza salatu dituzte, eta Europar Batasunari eskatu diote behingoz esku har dezala, “Espainiako Estatua elkarritzeta politikora behartu” dezala.

Ekitaldiaren amaieran, Carles Puigdemont presidenteak ere hartu du hitza: abenduaren 21eko hauteskundeetan parte hartzeko eskatu die herritarrei, argi esan diezaioten Europari “horrela ez”: “Europak bere estatuak entzun behar ditu, baina bereziki bere herritarrak entzun behar ditu”. Zorrotz mintzatu zaio Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko buruari: “Ikusi al duzu noizbait munduan zehar hiltzaileei tamainako sostengua ematen dien gaurkoa moduko manifestaziorik?”.

“Kirolari leku askotan ematen zaion tratamendutik aldenduko gara”

EÑAUT BARANDIARAN, IÑAKI BERAESTEGI, AITOR MANTEROLA, “HARMAILA” ALDIZKARIAREN SORTZAILEAK

“Lasai eta patxadaz irakurtzeko lanak izango dira, kirolaren ikuspegi hori gustatzen zaigulako. Kirola eta kirolaria erdigunean jarriko ditugu, mamia landuz, azalean eta lardaskerietan geratu gabe, gaur egun kirolari leku askotan ematen zaion tratamendutik erabat aldenduz. Euskal Herriko lurralde guztiei egingo diegu lekua”. Horrez gain, “ikerketek diote nerabeek eta gazteek euskarazko erreferentziak galtzen dituztela eskolatik kanpo, eta kirola izan daiteke euskara bizirik mantendu dezakeena adin tarte horretako pertsonetan. *Harmailak* aukera emango die kirola euskaraz irakurtzeko, behintzat”. **BALEIKE (2017-12-06)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Segur aski euskaldunok
egin behar genuke
erakargarriago
euskal kultura"**

Andres Urrutia, Euskaltzainburua (El Correo)

Naftalinarekin seduzitzen



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Aitorren hizkuntza zaharraren erret akademiak Bilbo-ko Plaza Barrian daukan egoitzan egon denak ikusiak izango ditu hango bilera gela nagusian zintzilik dauden Euskaltzainburuen erretratu, nire ustez, afrus xamarrek. Haietako bik ere -Haritschelar gorbatarekin eta Lekuo-na sotanarekin- agertu nahi izan dute Euskal Autonomia Erkidegoko iritzia dominatzen duen kazetako argazkian, Andres Urrutiari egindako elkarrizketa akonpainatuz. Antigoaleko estampa bat.

Eta badakit, publikatu den lekuan publikatu delako, elkarrizketa hau ez dela ni bezalako irakurle bati zuzendua, euskararen asuntotatik urrutirago dabilen jendeari baizik. Baina publikatu den lekuan publikatu delako, hain justu, arduratzen naute Urrutiak irakurlego horri bidali dizkien mezuek: karrera ikastera doanari bi ikasgai euskaraz, bi gaztelaniaz, bi ingelesez eta bat frantsesez egiteko gomendatzen die -murgiltze-eredu kataluniarra gurera ekartzeko asmoari ostikotxo bat gehiago-; diru-laguntza lauso gehiegi eman direla euskararentzat; "erabat klientelarrak" diren sektoreetara eramaten gaituztela diru-laguntzek... Pantailaren *scrolla* gorantz eramane behar izan dut hizketan ari dena Euskaltzainburua dela ziurtatzeko. Eta bai, bera da -Haritschellarrek beste alderantz begiratzen du argazkian, ezer jakin nahi ez balu bezala-.

Okerrena da funtsean bat natorrela Urrutiaren baieztapenarekin: euskaldunok egin beharko dugu erakargarri euskal kultura. Ez daukat hain klaro ordea, hori lortzen hasteko modua hau ote den. Kosmobisio erdaldunaren aurreiritziak baieztatzeak ez du euskararen aldeko jarrera positiborik sortuko. Aurreiritziak indartzea besterik ez. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ADUR

ANALISIA



Parisek meza bat balio du (*)



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: LANDER ARBELAITZ

Politikak eta erlijioak badute ezaugarri anitz komunean. Konbikzioak behar dituzte, zintzotasuna ere bai. Alabaina, politikaren errailetan jukutria dago, makiabelismoa; estatuaren arrazoia izate oroz gainetik dago.

Parisko 2107ko abenduaren 9ko manifestazioaren historia 1958an hasi zen, ETAren sorrerarekin hasi ere. Egungo gatazka politikoa ulertzeko ETAren bilakaezaren hainbat ezaugarri gogoratu behar dira: ETA herriaren errailetatik jaio zen eta sustraiak errotzeko "santutegia" izan zuen Iparraldean. Tokiko Enbata eta IK mugimenduen abaroan, besteak beste.

Egungo bake prozesua eta berau gauzatu ahal izateko funtsezkoa den euskal presoaskatasunaren aldeko ekimena ulertzeko, hainbat mugarri gogoratu behar dira: adibidez, 1970eko Burgosko prozesua eta 1977ko Askatasunaren Ibilbidea. Biak ala biak garaipenak izan ziren, bai herri honen burujabetasunaren alde, baita helburu horretan borrokatu zutenen alde ere.

Harrez gero, behin ere ez da bi helburu horien xedetan aurrerapauso eraginkorrik eman. ETak jarduera armatua behin betiko iragarri ostean, ordea, hainbat urrats eman dira. Aieteko Adierazpenak, Luhuso eta Baionako ekitaldiek –ETAren desarmatzea– normalizazio prozesuaren bidea zabaldu dute irtenbide negoziatu gabeko

gatazka honetan. Ez da kasualitatea izan, kasualitatea baizik. Lehen urratsa Aieten eman zen, Gipuzkoan. Aldi batez ezker abertzaleak boterea kudeatu zuen lurraldean. Ez da kasualitatea ere bake prozesu moduko hau Ipar Euskal Herrian bideratu izana: gatazkaren eragina bestelakoa izan delako eta "demokraziaren kultura" beste gisa batez errotu delako bertan, bai gizar-tean bai berau menpe duen Estatuan ere.

Euskal Herriaren errailetan sustraituta dauden bi estatuen politika jokoan, irudi luke, Frantziak iniziatiba hartu nahi duela behin-behinean. Alta, Espainiak dauka gatazka ebazteko gakoa. Gatazkan aritutako borrokalarien aldeko beharrek (euren askapena) aspaldian hartu zioten aurre herri honen burujabetasunaren aldeko beharrei. Gatazkako indar korrelazioen adierazle begi-bistakoa.

Euskal presoaren aldeko manifestazioa izan zen ordu bertsuan Johnny Hallyday musikariaren hileta elizkizuna izan zen Madeleineko Elizan. 13:00etan, Frantziako hedabideetan hura izan zen berri nagusia eta bakarra. Garai bateko Eliza nola, halatsu egungo komunikabideak, estatuaren zutabeak biak ala biak.

(*) "Parisek meza bat balio du" erranirua, Frantziako Henri IV. eta Nafarroako Henrike III. erregearena omen da. Esaldia topikoa eta apokrifoa ere ei da.

EKONOMIAREN TALAIAN

Hezkuntzan inbertitzea errentagarria da



Juan Mari Arregi

Hezkuntzan inbertitzea –eta ez soilik unibertsitarioan– errentagarria da herri batentzat eta bere jendar-tearentzat. Etorkizuna hezkuntzaren bidez eraikitzen da. Horregatik, ez da ulertzen gobernuak hain zuhurrak izatea premisa hori kontuan ez duten aurrekontuak aurkezten dituztenean. Are gutxiago ulertzen da EAE unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako langileak zazpi hilabetez mobilizatzen aritea –aste honetan izan dute bigarren greba orokorra– eta arduradun politikoak kapaz ez izatea erantzun negoziatu bat artikulatzeko. Aldiz, ez dute inongo arazorik patronalarekin biltzeko, haien apektak betetzeko. Patronalak ez du mobilizazioen beharrik zerga jaitsiera lortzeko. Nafarroan, Gobernua agian aurrerakoiagoa izan liteke, baina hezkuntzan murrizketak iragarri dituzte.

Langileek eskatzen dute sare publikoan inbertsioa handitzea, zehazki BPGaren %3,5eko igoera. Hala, Europako %6ko batez bestekora iritsiko litzateke, Unescok aholkatzen duen gutxienez. Horrez gain, irakaskuntzako pertsonalean 1.800 lagun gehiago behar direla diote, eta behin-behinekotasun tasa %38tik %6ra jaitsi nahi dute; 6.000 lanpostu egonkortu beharko lirateke horretarako. Irakasleek galdutako eros ahalmena ere berreskuratu nahi dute, Haur eta Lehen Hezkuntzakoek 32.500 euroko galera baitute pilatuta eta Bigarren Hezkuntzakoek 41.000 eurokoa.

Egiaz uste bada hezkuntzan inbertitzea errentagarria dela, lehentasunezko zerbait izan beharko litzateke aurrekontuetan partidak zehazteko garaian. EAE negoziatzeko ukatzea mobilizazioak eta greba mantentzen direlako, sua xaxatzea da, eta batez ere, herri honen etorkizuna den gazteriarentzako formazio gastu eta galera gehiago sortzen segitzea.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

"Aitor Zabaleta, beti gogoan"

DONOSTIA. Aitor Zabaleta labankadaz hil zutela 19 urte bete direnean, omenaldia egin diote Realeko jarraitzaile zenari. 1998ko abenduaren 8an hil zuten, 28 urte zituela, Madrilen Vicente Calderón futbol zelaia inguruan, UEFAko txapelketan Atlético de Madrid-Real Sociedad partida jokatu aurretik. Hainbat ultrak inguratu eta bihotzean labankada sartu zioten. Bastión izeneko talde ultraeskuindarreko kide Ricardo Guerra izan zen hiltzailea, frogatuta geratu denez.

Abertzaleen garaipen zabala Korsikako hauteskundeetan

Argia

"Korsikarentzat" koalizioak botoen %56,5 lortu ditu. Abstentzioa %47,4koa izan da. Korsikeraren ofizialtasuna dute helburu, besteak beste. Bestalde, Autodeterminazioaren Poloa sortu dute Sardiniako zortzi alderdi eta mugimenduk.

Emaita

Bigarrenak eskuindar erregionalistak izan dira, botoen %18,29 lortu dituzte. Jean-Charles Orsucci Frantziako presidentearen babesa zuen hautagaitzak botoen %12,67 jaso du. Azkenak errepublikanoak izan dira (%12,57).

Helburuak

Irabazleek autonomia estatutu berria negoziatu nahi dute Frantziarekin. Horrez gain, helburu dute Korsikeraren ofizialtasuna eskuratzea, preso politikoentzako amnistia, eta espekulazio urbanistikoari aurka egiteko legedia onartzea.

Sardinian koalizioa

Autodeterminazioaren Poloa sortu dute Sardiniako zortzi alderdi eta mugimenduk, "denboran irauteko intentzioarekin". Italiako alderdiekiko alternatiba gisa egin nahi dute bidea eta 2019ko hauteskundeetan garaipena bilatuko dute.

ERREFUXIATUAK



hegaldi inguru gelditu dituzte hegazkin-pilotuek Alemanian, deportatu nahi zituzten errefuxiatuak zihoazelako bertan.

3.000 euroko konpentsazioa emango dio Alemaniako Gobernuak otsailetik aurrera, deportazioa onartzen duen migratzaile bakoitzari.



HONDURAS

Azaroaren 26an presidentea hautatzeko hauteskundeak egin zituzten Hondurasen, baina bi hautagaiek jo dute beren burua irabazletzat eta oposizioko dozenaka mila herritar kalera atera dira "iruzurra" salatzen. Protestetan militarrek herritarren aurka tiro egin eta gutxienez hiru manifestari hil dituzte.



RAPEATZEAGATIK

Bi urte eta egun bateko kartzela zigorra, 4.800 euroko isuna eta 9 urteko inhabilitazioa. Horra La Insurgencia taldeko 12 raperoek Espainiako Auzitegi Nazionalen jaso duten zigorra, "terrorismoari gorazarre" egitea leporatuta.



KLIMA ALDAKETA

Erregai fosilak ekoizten dituzten enpresek klima aldaketan duten erantzukizuna aztertzeko lehenengo ikerketa abiatuko dute. Bestek beste Repsol, Shell eta Chevron enpresak daude jomugan.

Zer dabil parlamentaria *Big Pharmak* pagatutako bisita gidatuetan?



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Amgen multinazionalak gonbidatuta, Dublinen izan dira Madrilgo legebiltzarreko EAJ, PP eta Ciudadanos alderdietako senatari batzuk, *ElDiario.es*-ek plazaratu eta ARGIAtik Andoni Mikelarenak oihartzun egin zuenez. Ez du zalaparta handirik piztu albisteak. Menturaz bai sortuko zuela, eta handia, herritarrek lotu balute farmaziako multinazionalen promozio operazio hori Gizarte Segurantzak kiebra bidean daramaten botika berri txit garestien eskandaluarekin.

Zergatik axola behar zaio irakurleari Amgen izeneko enpresa bat? Interneten Amgenek galdezka hasten baldin bazara, bioteknologiako puntako aurrerapenen albisteak aurkituko dituzu batetik eta, bestetik, botika berriak merkatzea lortu ahala burtsetan bere akzioek egiten dituzten jauzienak. Hori guztiz osasuntsu baldin bazaude.

Zeren eta biziak oparitzat ekarri badizu gaixotasun inflamatorioen bat (heste, larruazal zein hezurretako), edo bihotzeko arazoak edo minbizi gaiztoren bat... orduan bai seguru egingo duzula topo gaur ez bada bihar Amgenekin eta berekin konkurrentzian ari diren multinazionalekin. Ingeniaritza genetiko sortutako botika biologiko deituak dira gaur medikuntzan *trending topic*, eta burtsetan negozioirik erakargarrienak egiten dituztenen zerrendetan ere bai.

EAJko Nerea Ahedo doktorea eta PP eta Ciudadanoseko bi senatari gehiago –beste alderdietakoek uko egin omen zioten gonbidapenari– Irlandako bere faktoriara bidai oraindun eraman zituen Amgen handiak (23.000 milioi dolarreko salmentak, 8.000 milioi irabazietan, 20.000 langile) merkaturatzen du botika biologikoetan izarretakoa dena: artritis, Crohn eritasuna edo psoriasis bortitza nozitzen dituzten hainbeste gaixok ezaguna duten *Enbrel*. Marka komertzialak daraman molekula *Etanercept* deitzen da, baina immunitate sisteman eragiten duten botika berrietako askoren izenak *-mab* partikulaz

bukatzen dira. Horrela, *Etanercept* molekularen sailekoak dira *Infliximab*, *Adalimumab*, *Rituximab* eta abar luze bat, erreumatologian eta onkologian batik bat baina beste eritasun larri ugartan ere gero eta gehiago erabiliak.

Duela 20 urte botika biologiko berriak egon ere ez bazeuden, orain bere erabilerak medikuntzako *establishmentaren* dogmetako bat bihurtuta dago. Gutxi dira doktoreak biologikoen arriskuak salatzeraz ausartzen direnak, terapia genetiko hauen alboko kalteez ohartarazi eta protesta egiten dutenak agintariak horiek merkaturatzeko multinazionalen kontrol sistemak murriztu dizkietelako.

Ez dira asko ere gaixok tratamendu bortitz horiei uko egiteko adorea eta informazioa dutenak. Bere medikuek gaixotasunentzako tratamendu posiblez daukaten informazio ia guztia multinazionalen banatzen dietena baita, zuzenean publizitate moduan emana ez denean, edo konpainiek kate motzetik lotutako ikerketa zientifikoen argitalpenetatik jasoa.

Biologikoen kritikak badu, ordea, osagai ekonomiko larri bat. Madrilgo *El País* egunkariak 2015ean aitortzen zuen Espainiako ospitaleek botiketan gastatzen dutenaren faktura osoaren %40 biologikoetan joaten zaiela. Berrikitan Frantziako *Basta!* hedabideak analisi zorrotz bati izenburu hau ipini dio: "Gure Gizarte Segurantzari milaka milioi kostatzen zaizkion eta osasun sistema arriskuan jartzen diguten botika garesti horiek".



"Ohartzen gara –idatzi du Simon Gouinek dossier ondo dokumentatua– zerrendan dauden minbiziaren aurkako botika berriok hain direla garestiak ezen eta gure osasun sistemaren muienean datzan solidaritate printzipioa arriskuan jartzen baitute. Baina gainera, medikuek errazen gomendatzen dituzten botiken eraginkortasuna sarritan jarri da zalantzan. Hori dena gutxi balitz, multinazionalen prezioak finkatzeko daukaten sistema iluna da, hau ere harapatuta daukatelako adituen eta farma-industriaren artean".

Gastuak publikoak, etekinak pribatuak

Egin kontu. AEBetako Medikuntzako Institutuak 2016an publikatu zuenez, han gaixo bakoitzaren urte beteko tratamendua *Etanercept*, *Adalimumab* eta *Infliximab*ekin kostatzen zen 24.859 eta 26.460 dolar artean. Espainian botika horiek urtean 10.000 eta 14.000 euro artean kostatzen direla argitaratu izan da, farmaziako multinazionalen prezioak batean eta bestean nola alda ditzaketen seinale. Edonola ere, diru asko, milioika gaixo larri eta kroniko epe luzean horiek lotzeko.

Big Pharmak orain arte arrakastaz lortu duen arren bere biologikoak hain garesti saltzea, argudiatuz horiek sortzeko ikerketa eta saiakera klinikoak oso kario ateratzen zaizkiela, azken urteotan erabaki dute beren buruei konkurrentzia egitea nolabait *low cost bio-*



Amgen multinazionalaren iragarkian, bere produktu izarretako bat den 'Enbrel' biologikoaren promozio irudia. 'Enbrel'-en konkurrentzia nagusia 'Humira' da, munduko biologiko salduena, baina orain Amgenek horren berdina ez baina antzekoa izango omen den biosimilare merkeagoa prest dauka. Amgenek esku batekin politikariak konbentzitu nahi ditu biosimilareen legeztatzea errazteko eta bestearekin 'Humira'-ren jabea den AbbVie konpainiarekin negoziatu, bere biosimilarea ez merkaturatzeko 2023 arte.

logikoak deitu genitzakeen erremedio biosimilareak merkaturatuz.

Amgenek bere webgunean aitortzen duenez, biosimilareak eta generikoak ez dira nahasi behar. Botika generiko batek merkaturatzen du markako erreferentziazkoaren molekula bera, prezio askoz merkeagoan, herritar guztiak ohartu direnez. Aldiz, orain merkeago kopiatu nahi diren botika biologikoak askoz konplexuagoak dira beren osaketan eta biosimilareek horien osagaietako batzuk daramatzate, ustez jatorrizkoaren eragin berdintsua eduki behar dutenak. Horregatik ez dirudi gehiegieria esatea biosimilareak direla *low cost biologikoak*.

Honek guztiak zer dauka ikusteko-rik parlamentarien bidaiarekin? Askok. Uholde neoliberal baliatuz, *Big Pharma* konpainiek hain garesti saltzen dituzten

botikak hein handi batean diru publikoz egindako ikerketen emaitzak dira. Unibertsitate publikoetan herritar guztien diruz egindako ikerlanen fruituak gero abian jartzen dituzte konpainia handiek zuzenean edo hauek soka motzetik kontrolatuta molekula berriak merkaturatu arteko prozesua egiten duten *start up* distiratsuek.

Bestalde, botika berrien esperimentazio fase luzea ere osasun sistema publikoaren bizkar egiten dute. Ekonomiaren eta zerbitzu publikoen beste atal askotan legez, gastuak komunitatearentzat, etekinak pribatuak. Gaixotasun kroniko larriren bat edo minbizia jasan duten irakurle bat baino gehiago izango da lekuko nola eskaini zaion punta-puntako botika berrien probatzaile aurreratu izatea. Pribilegioa usteko dute gehienek, *akuri lana* aitortuko du bakanen batek.

Justu azken atal honetan sartzen da politikarien funtzioa: *Big Pharmaren* negozio handia oraindik legebiltzarrek arautzen dutenez, legeak malgutzea eskatzen dute industria merkaturatu nahian ari den molekula berriek.

Zenbait mediku kritikok salatzen duten arren –orain artean arrakastarik gabe, bistakoa denez– botika berri garestiok merkaturatzen direla gaixoen segurtasuna bermatu gabe, eraginkortasuna aski frogatu gabe, alboko kalteak ondo neurtu eta ustezko etekinekin alderatzeke...

Hori horrela izan dadin, legegileek industriari baimendu diote merkaturatu aurreko esperimentazio eta entsegu klinikoak laburtzea. Badirudi orain gauza bera erdietsiko dutela biologikoen ia-berdintsuak izango omen direla dioten biosimilareekin. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




50 urtez elkarrekin

Gorka Pastor musika konpositorea

«Badirudi hizkuntza menderatzen dugula, baina ezin dugu hitz egin gure instrumentuarekin»

Film luze eta labur, dokumental, antzerki lan, dantza ikuskizun edo bideo jokoetarako soinu banden egilea da. Inprobisatzen eta musikarekin jolasten jartzen dio soinu banda bizitzari.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola sortu zen pianorako intuiziozko metodoa sortzeko ideia?

Martxoan Ilus Books argitaletxeoak harremanetan jarri ziren nirekin eta metodo hau egiteko proposamena luzatu zidaten. Estatuan hamabi musikariri egin ziguten proposamen bera eta azkenean nire proiektua aukeratu zuten. Polita iruditu zitzaidan, halako ariketak betidanik landu izan ditudalako nire ikasleekin. Ideia da lehen unetik edozeinek jo ahal izatea liburuan biltzen diren 49 kanta modernoak akordeak. Lau oinarritzko akordeak ikasita eta erritmo desberdinekin ia edozein abesti jo dezakegu. Gainera, liburua oso ongi ilustratuta dago eta erraz ulertzen da dena. Hemen melodia ez da agertzen. Hau pentsatuta dago akonpainamendu gisa, abesteko edo kantaren grabazioarekin batera jotzeko, ez bat-batean piano jotzaile ikaragarri bihurtzeko. Hau ez da magia. Bide errazagoa erakutsi nahi diot jendeari oinarri bat hartzeko, besterik ez.

Musika ikasten ari garenean ematen du lehenengo musika irakurtzen eta idazten ikasi behar dugula eta instrumentua azken esperientzia dela, baina horrek ez du zertan horrela izan. Beste

toki askotan, Afrikan esate baterako, oso bestelakoa da musikarekiko harremana. Hemen ematen du asko jakin behar duzula jolasten hasteko, baina prozesua gehiegi luzatzen baduzu zerbait ez oso naturala bihurtzen da azkenean. Gure hezkuntza sistemaren akatsa da. XIX. mendeko birtuosismoan oinarritzen da eta ematen du mundu guztiak kontzertista izan behar duela, baina jende guztiak ez du kontzertista izan nahi. Nik neuk, adibidez, konpositorea izan nahi izan dut betidanik, aita bezala.

Zergatik?

Gauzak imajinatzea delako gehien gus-tatzen zaidana: margoak, ipuinak eta baita musika ere. 10 urterekin hasi nintzen musika piezak konposatzen, jolas moduan. Hasieran jotzen nituen eta gero idazten ere hasi nintzen. Margo-tzea ere maite dut. Zalantzan izan nintzen, ez bainekien piano ikasketak bukatu edo Arte Ederrak egin.

Zergatik ematen diozu hainbesteko garrantzia inprobisazioari?

Niretzat inprobisatzea hitz egitea bezala da. Musikan bat-batean jotzen badut norbaitekin, hizketan ari gara eta goza-

tzen, baina kontserbatorioetan gauzak buruz ikasgaraztea da lan egiteko modua. Sistema horrekin ikasten ari den bati galdera bat egiten badiozu ez daki erantzuten. Hori, nire ustez, kristoren akatsa da. Badirudi hizkuntza menderatzen dugula, baina ezin dugu hitz egin gure instrumentuarekin. Aldatu beharra

Gorka Pastor

Iruña, 1979

Konpositorea eta musika irakaslea. Koldo Pastor konpositore iruindar ezagunaren seme gazteena. 2016an Goya saria irabazi zuen *Hijos de la tierra* filmari musika jarri zion berak. THC eta Garufa Tango taldeetako kidea izan da eta hemezortzi urtez Noaingo Musika Eskolako piano eta inprobisazio irakaslea. Azken hamar urteotan bederatzi antzezlan eta hamabi film labur eta dokumentalen musika doinuak konposatu ditu. Joan den urrian *Método intuitivo de piano* liburua plazaratu zuen, musika jakin gabe pianoa jotzeko irakats liburua.



dago. Beste toki askotan jolasten dira musikarekin, inprobisatzen dute eten-gabe. Komunikazio hori sortzea da indartu behar duguna. Beldurra apurtu eta musikaren mundura gonbidatu jendea. Baina askotan irakasleek ez dute nahi, beldurra ematen dielako. Horregatik irakasten dute haiek ikasi zutena. Horretaz ohartu nintzenean, eskolak ematen hasi eta oso gutxira, hasi nintzen nire irakasteko modua aldatzen. Asko ikasi dut eskolak ematen. Nire jakinduria bazen *gruyere* gazta baten antzekoa eta eskolak ematerakoan nituen hutsuneak betetzen joan naiz. Oso zoriontsu izan naiz.

Hala ere 18 urteren ondoren eskolak emateari utzi diozu. Zergatik?

Nekatuta nengoen eta aldaketa behar nuen. Zaila izan da erabakia hartzea, baina pozik nago orain. Pena eman zidan eskolakoak nire lagunak direlako, ia-ia nire familia. Baina soilik noizbait eskolak eman dituenak daki zenbat energia xahutzen den. Eskolak ematea maite dut, baina nire bokazioa sortzea da.

Behar nuen denbora pianoa jotzeko, bidaiatzeko, irakurtzeko, margotzeko... Berriki Gaiarre antzokian egin den *scaperoom* baterako eta antzerki lan baterako musikak egin ditut, eta aukera izan dut entseguetara joateko, adibidez. Hori egin behar da emaitza bikaina lortu nahi baduzu. Korrika eta presaka ibiltzea ez da ona. Bestalde, azken hiru film proiektuetan zuzeneko soinu ere grabatzeko eskatu didate eta bidaia asko egin behar dira horretarako.

Orain denbora gehiagorekin zer duzu askatasun handiagoa edo eromen handiagoa?

Bietatik, baina ni horrela oso gustura nago. Gauza bat bakarrik egingo banu desorekatuta egongo nintzateke eta zuzeneko emanaldien energia ere ez dut galdu nahi.

Zer proiektu dituzu orain esku artean?

Amerikako Estatu Batuetatik iritsi berria naiz. Han La llave maestra talde nafar-txiletarrarekin *work-shop* batean parte hartu dut. Oso interesgarria izan da. Itzulitakoan bi asteko ikastaro interesgarria egin dut Donostian bideo-joko, antzerki eta zinemarako soinu bandak egiteko Paula Olazekin.

Orain lau pelikulan nabil: Patxi Urizekin *Los últimos de la mejana*, Ultreia Films etxearen proiektuan; Nafarroako Erriberako baratzeak berreskuratzea bultzatzea eta elikatzeko ohitura osasungarriagoetara itzultzeko beharraz sentsibilizatzea asmoa duen filma. Bestalde *Hijos de la Tierra*-ko produkzioa egin zuen Sandra Iraizozek idatzitako liburu bat, *En un minuto tu vida cambia*, zinemara eraman nahi dute Kolonbiaren eta Brasilen arteko koprodukzio batean eta hor ari naiz. Hirugarrena da Pili Múgicaren *Penitencia* film laburra, kartzela eta bergizarteratzeari buruzko lana. Eta laugarrena Oskar Tejedorren fikziozko film laburra. Oso gustura ari naiz horretan, nire lan gehienak dokumentalak izan direlako, eta hau aldiz fikzioa da.

Ingalaterra aldera ere jo nahi duzu.

Horiez gain, nire proiektu pertsonalean ari naiz prestatzen Euskal Herriko abeslari batekin. Pop britainiarra ukitu elektronikoarekin ari gara lantzen. Duela hiru urte hasi ginen eta laster hurrengo urrats bat eman nahi dugu Ingalaterran. Beste ideia asko dauzkat buruan. Film eta antzerki obretarako sortu ditudan konposizioak moldatu nahi ditut Iruñeko Zura Quartet harizko laukotearekin emateko. Nik haiekin pianoa eta sintetizadoreak joko ditut eta gustatuko litzaiguke, aldi berean, irudi muntaketa bat egitea, noiz eta zertarako egin dudana musika hori guztia azalduz. Kontzertu pedagogiko moduko bat egin nahi dut. Izugarri gustatzen zait jendaurrean jotzea.

Zer zen THC?

THC 1999an Iruñean sortu genuen funk-jazz musika taldea izan zen. Maketa bat eta bi disko grabatu genituen, duela bederatzirte urte taldea desegin arte.

Eta Garufa Tango?

Garufa Tango taldea sortu genuen aho-tsa eta pianoa uztartuz, Euskal Herrian eta Italian tango erreperitorio klasikoa eskainiz. Proiektu horren bidez Buenos Airesen denboraldi bat egin nuen, musika estilo horretan sakontzeko.

Film bateko soinu banda onena nabaritzen ez dena da?

Esaten dute pelikula oso gustura ikusi ondoren, musika ez baduzu gogoratzen,

» “*Hijos de la Tierra* Goya saria irabazi ondoren hemengo jende asko hasi da nire lana kontuan hartzen. Badirudi batzuetan halako sari bat behar dela jendeak ikus dezan hemen egiten den lana ere ona dela”

» “Pelikula normal batean 40-45 minutuko musika sar dezakegu, baina bideo-jokoan agian 30 edo 40 ordu”

» “Kulturalki askotan kexatzen gara laguntza handirik ez dagoelako edo gauza gutxi egiten direlako, baina egia da, bestalde, gauza pila programatzen direla eta gu geu ere ez garela joaten”

» “Gure artean mespretxuz ikusten dugu askotan gure musika eta gero kanpoan, aldiz, esaten digute oso kultura aberatsa dugula”



horrek esan nahi duela ongi kokatuta zegoela. Musikak ez du goitik egon behar, ezta desagertuta ere. Musika egileen asmoa da beste dimentsio bat ematea pelikulari. Izan ere, badira istorio batzuk musikarik gabe ongi ulertzen ez direnak. Musikak filma lagundu behar du. Hemen musika ez da protagonista, kontzertu batean bezala. Bideo-joko eta film batean lagundu behar dugu zuzendariaren helburua indartzen, horregatik gure egoa bigarren planoan utzi behar dugu.

Merkatuari dagokionez, nola dago lan-bide hori?

Azkeneko lau urteetan bost pelikulatarako eta bost antzerki obratarako musika konposizioak egin ditut eta gero eta argiago ikusi dut hori dela nire bidea. *Hijos de la Tierra* Goya saria irabazi ondoren hemengo jende asko hasi da nire lana kontuan hartzen. Badirudi batzuetan halako sari bat behar dela jendeak ikus dezan hemen egiten den lana ere ona dela.

Bestalde, bere garaian zinemarekin sortu zen izugarrizko aukera musika konpositoreentzat eta orain bideo-jokoekin gauza bera gertatzen ari da. Bideo-jokoek pelikulek baino aurrekontu handiagoa izaten dute. Esaten dute Espainian populazioaren erdia egunero jolasten dela halako jokoekin. Izugarrizko merkaturia dago. Batzuetan orkestra sinfonikoekin grabatutako soinu bandak ere izaten dituzte. Pelikula normal batean 40-45 minutuko musika sar de-



eLEKTRIKA
G R A B A K E T A K

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan

-Nahasketa analogiko profesionala

-Zuzeneko teknikaria

Ander Barriuso Muñoa

<https://elektrikagrabaketak.bandcamp.com/>
<https://www.facebook.com/elektrikagrabaketak/>
elektrikagrabaketak@gmail.com
tlfnoa: 687046386

zakegu, baina bideo-jokoan agian 30 edo 40 ordu. Nik bideo-joko baterako konposatu dut musika eta oso esperientzia polita izan da. Asko gustatzen zaizkit jokoak eta aukera handiak ematen dituzte.

Nola egiten da soinu banda bat?

Lehen pausoa da zuzendariarekin asko hitz egitea eta bere asmoak ulertzen saiatzea. Normalean pelikula bukatuta dagoenean egiten dugu musika, baina batzuetan eskatzen digute konposizio osoa edo erreferentzia batzuk, bederen, filma amaitu baino lehen, muntaketa fasean sartzeko. Batzuetan, ezer egin baino lehen, pentsatzen dut zine aretoan banintz niri zer musika gustatuko litzaidakeen entzutea. Artisau lanak denbora eskatzen du eta zure tresnak menderatzea, noski. Ideia harrapatzea da gehien kostatzen dena.

Guk askatasun erlatiboa dugu. Oso garbi eduki behar dugu nor den zuzendaria eta egoa beti etxean utzi. Asko gustatzen zait inprobisatzea margolariekin edo dantzariarekin, adibidez. Diziplina artistikoak ez ditugu bereizita begiratu behar, azken finean, sentimenduen mundua berdina delako. Sentsibiltate horrek sustrai berdina du eta oso aberasgarria suertatzen da diziplinak nahastea.

Nola ikusten duzu musikaren panorama orokorra hemen?

Iruñerrian, Nafarroan oro har, artista handiak sortzen ari direla uste dut, baina batzuetan kanpora joan behar izaten dugu egiaztatzeko. Duela gutxi AEBetan izan gara La llave maestra antzerki taldearekin eta ikustekoa zen nola hartu gintuzten. Jendea asko harritu da mailagatik.

Nafarroan talde asko sortzen dira, baina gehienek antzeko estiloak jorratzen dituzte: rock, punk, punk-rock, rock progresiboa, pop-rock... %80 estilo horiek dira. Gustatuko litzaidake estilo desberdinak garatzea. Musika elektronikoa oso gutxi lantzen da hemen, esate baterako. Ska eta reggae egiten da Skalariak taldeak bide hori zabaldu zuenetik eta gaur egun talde onak ditugu, Vendetta edo En tol sarmiento. Alabaina, kanpora joaten zarenean eta ikusten duzunean zer gauza desberdinak egiten diren, pentsatzen duzu, eta zergatik ez gurean? Gustatuko litzaidake

ke hemengo panorama unibertsalagoa izatea, baina hala eta guztiz ere maila oso handia dago. Jazzean, adibidez, oso musikari onak ditugu. Estatuan Alberto Arteta garestarra ikaragarria da. Patxi Urizekin irabazi genuen Goya saria, baina aurreko urtean beste nafar batek, Raul de la Fuentek, ere irabazi zuen. Uste dut panorama polita dagoela eta harro sentitzeko modukoa. Kulturalki askotan kexatzen gara laguntza handirik ez dagoelako edo gauza gutxi egiten direlako, baina egia da, bestalde, gauza pila programatzen direla eta gu geu ere ez garela joaten. Kultur eskaintza murrizta dagoela errepikatzen dugu eta batzuetan ez da egia. Erriberriko antzerki jaialdia, adibidez, bikaina da. Ni neu ere kexatzen naiz maiz, baina gero Gaiarre edo Baluarteke programazioak ikusita, gauza pila eta oso onak daudela onartu beharra dago.

Euskal musika etnikoa nola baloratzen da hemendik kanpo?

Oreka TX AEBetan, esate baterako, oso arrakastatsua da. Nirea ez da berez euskal musika baina beti sartzen dut ezaugarriren bat, txalaparta pixka bat, adibidez. Gure artean mespretxuz ikusten dugu askotan gure musika eta gero kanpoan, aldiz, esaten digute oso kultura aberatsa dugula. Niri nahasketak izugarri gustatzen zaizkit, Kepa Junkerak egiten dituenak, adibidez. Probak egitea beti ona da, eta gainera emaitza ona ateratzen denean, zoragarri. Dena ez dago asmatuta. Notak agian bai, baina konbinazioak infinituak dira. Sukaldean ere osagarri guztiak asmatuta daude, baina beti egin daitezke plater berriak.

Bizitzari soinu banda jartzen diozu aldi oro?

Gertatzen zait bai, gauzei musika jartzen diedala, edo liburu bat irakurtzen ari naizenean musika imajinatzen dudala... Halakoetan askotan aprobetxatzen dut mugikorrean grabatzeko eta zerbaitetarako gorde.

Aita pozik dago bere bidea jarraitu duzulako?

Aita oso pozik dago. Beti izan dugu harreran zoragarria, baina lehen bera maisua zen eta ni ikaslea eta orain maisutzat hartzen nau. Askotan berak kontzertu bat bukatzen duenean nire iritzia eskatzen dit. Oso polita da. ■



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatu

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 · 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Zapiak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Valladolid. Iraileko arratsalde eguzkitsua. Karima, Arantxa eta beste lagun bat euren seme-alabekin zeuden auzoko igerileku publikoan. Gustura zeuden zelaian, jantzirik, haurrak jolasean begiratzen zituzten bitartean. Bat-batean igerilekuko zaintzailea gerturatu zitzaion: "Hemen ezin duzue jantzita egon. Arropak eranstean ez badituzue, igerilekutik alde egin beharko duzue. Bestela, poliziari deituko diot". Zelaian jende gehiago zegoen jantzirik, baina Karimak eta lagunak *hijaba* zera-maten. Arropa hori izan zen zaintzailea gogaitu zuena.

Burua makurtu gabe, poliziari dei ziezaiola erantzun zuten emakumeek. Bi udaltzain hurbildu ziren Karima eta honen lagunarengana eta dokumentazioa eskatu zieten. Arantxari ez zitoten ezer eskatu. Karimak haien jarrera hura gertakari sexista eta arrazistatzat jo zituen, udaltzain batek "Españian zaude, neska. Nik esango banizu zer den arrazakeria...", erantzun zion.

Karima eta Arantxa ez ziren isilik gelditu. Komunikatu bat idatzi zuten Facebooken. Hedabideek albistea zabaldu zuten eta kirol zinegotziarekin bildu ziren. Zinegotziak onartu zuen ez dagoela zelaian kaleko arropekin jantzita egotea debekatzen duen araudirik. Baina ez zuen polizien eta zaintzailearen kontrako neurririk agindu. Valladolideko koordinakunde feministak ez zuen elkartasunik adierazi, ez haren inguruko sindikatuek, ezta alderdi politikoek ere.

Getxoko "Zurumurrurik ez!" estrategiaren testuinguruan, islamofobia eta generoari buruzko mintegi batean parte hartu dut berriki, Bidaya elkar-teko Hajar Samadirekin batera. Valladolidetik itzuli berria, pasadizo hori kontatu nuen. Hajarrek hamaika istorio zituen kontatzeko. Gogorrena, Marwa El-Sherbiniren kasua, Alemaniako Dres-

Karima eta Arantxa ez ziren isilik gelditu. Komunikatu bat idatzi zuten Facebooken, hedabideek albistea zabaldu zuten eta kirol zinegotziarekin bildu ziren. Zinegotziak onartu zuen ez dagoela igerilekuko zelaian kaleko arropekin jantzita egotea debekatzen duen araudirik. Baina ez zuen polizien eta zaintzailearen kontrako neurririk agindu

den hirian bizi zen egiptiar jatorrizko emakume batena. Gizon txuri baten hitzezko eraso eta jazarpenak salatu zituen. Epaiketan bertan gizon horrek

El-Sherbini sastakaiz erail zuen 2009. urtean.

Hajarrek salatu zuen Euskal Herrian ere zapia erabiltzen duten emakumeek enplegua edo etxebizitza bilatzeko orduan, diskriminatuak izaten direla maiz. *Hijaba* emakume musulmanen zapalkuntzaren seinalea dela uste duten pertsona berberak, zapia janzten duten emakume musulmanen funtsezko eskubideen urraketak onartzen dituzte. Gorrotoa sustatzen duten diskurtsoak onartuz indarkeria legitimatzen dute. Genero islamofobia indarkeria xenofobia da (nahiz eta emakumeak bertokoak izan, Islama arrotza bezala ikusten delako), baina baita sexista ere. "Gizarteak emakume musulmanak jaurtitzeko arma gisa erabiltzen ditu Islamaren kontra", azaltzen du Ramia Chaoui youtuberrak burkiniaren debekuei buruzko bideo batean.

Eskuin-muturreko taldeekin lotzen dugu genero islamofobia, baina mugimendu ezkertiarretan ere forma leunagoekin agertzen da. Hajar Samadik gorroto diskurtsoak eta diskriminazio kasuak luze aztertu zituen bere hitzaldian, baina solasaldian hitz egin zuen lehenengo pertsonak, gizon txuri nagusi batek, Muhammad profetaren historia bi minututan kontatu izana aurpegiratu zion: "Ez ditut liburu sakratuak eta santuak gustuko". Ondoren beste gizon txuri batek etorkin eta errefuxiatu ateak ikusgai egiteko beharra aldarrikatu zuen. Hortik aurrera, ez genuen islamofobiaren kontrako estrategien inguruan sakondu; Islama eta Estatu laikoa bateragarriak ote diren eztabaidatu zen, betiere gure ikuspuntu etnozentrikotik abiatuz.

Brigitte Vasalloren hitzak ditut go-goan: "Eraso islamofoboez ari garenean eztabaidetan galtzen bagara, kaltetuen alde egin beharrean, erasoaren parte bihurtzen gara". ■

Azokan

Hotz egiten zuen urte haietan Durangon, azoka plazako arkupe hartatik biltzen ziren giro hotz haiek guztiak. Zamarrarik ez genuen erazten inondik inora. Euskaltzale gaztea, berantiarra, eta ez nuen ezagutu elizpekoa. Gogoan ditut salmahaien atzetan guretzat, niretzat behintzat, izen mitikoak ziren idazle eta kultura dinamizatzaileak saltzaile, gidari esatea egokiago, lanetan. Saltzaile profesional gabe, nobedade apurrak erosi, paperetako sinaduraz besterik ezagutzen ez genituenak haragiztatuta ikusi eta bostekoa eta animo handiak emanaz agurtu. Ez zen festa festagorik hura baino guretzat.

Ez nuen urterik huts egin, nola, bada, hura gabe! Hain zen horrela ez dut ahaztuko, neure buruari ez diodala barakatuko esan nahi dut. Hutsik ez egite horretan, hantxe eta hangoxea erremediorik gabe bizi behar horretan, Inazio Lasa Rezola Azpeitiko Lasaon asesinatu zutenean, ez nintzela hari buruz jarrera hartu zuen udal batzarrera agertu, eta ez eta ez agertzea justifikatu ere. Ez nintzen gizon haren hiletetara, herri-tar eta zinegotziaren eginkizuna betez, agertu ere egin, gutxiago oraindik familiakoei kontsolamenduzko hitz erdi bat zuzendu ere. Durangoko azokak, ez



Ramon Etxezarreta

PSE-EE-KO KIDEA ETA ITZULTZAILEA

@retxezarreta

Beldur urteek expulsatu egin ninduten azokatik, ordurako, jada, neurrigabe jendetsutik. Egun euskal kulturaren beharrek sinboloetatik ihes egitea hobe luketenean, Durangoko Azokak ekarpenik ez diola egiten esango nuke

bestek, zuen bere biziko garrantzia, han egon behar derrigorrezkoa neukan, zer ikusiko, zer esango, zer entzungo, zer...

Urte batean koadrila ere joan ginen esku artean argitara berria genuen *Oh Euzkadi!* hartu eta saltzera. Bost duro-

tan saltzen genion erosi nahi zuenari eta opari ematen genizkion erosleari *Panpina*, *Zorion Ustela* eta *Mermelada Ustela*. Altxor baliotsua gaurko begietatik. Ez genuen arrakasta handiegirik izan. Homologazio garaia zirela zioten euskarazko kulturako santutzarrek. Sarrreran mantero gisa geundenok kalera bota gintuzten geure aldirikari eta guzti. Bizi naizeino ez dut ahaztuko antolatzaillei, hatz punta gugana zuzenduz belarriak berotu zizkien kristau zintzo homologagarria. Nola berotzen dizkidan odolak, oraindik ere, Aresti ere guztiz asimilatu, zurrupatu, dutela ikusten dudanean. Sugegorrikumeak, hilobi zurituak!

Hotzen hasi nintzen urteak aurrera ahala. Beldur urteek expulsatu egin ninduten azokatik, ordurako, jada, azoka neurrigabe jendetsutik. Egun euskal kulturaren beharrek sinboloetatik ihes egitea hobe luketenean, azokak ekarpenik ez diola egiten esango nuke. Gazteek berenganatu dute ezarri zaien santorala, hauek ere ez dute bat bera huts egiten, milaka kalimotxo, milioika kontsigna, hizkuntza alkoholdua. Aurtengo nobedadeak bi aste lehenagotik erosiak dauzkat eta hurrenkeran irakurtzen ari naiz, jakin mina, aurkezpen data edo auskalo zer apetaren arabera. ■

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

50€



Separatismorik ez!



Zigor Etxeburua
Urbizu

KONTSEILUKO KIDEA
@ZEtxeburua

Wikipediaren definizioaren arabera gizarte-bazterketa da “pertsonen gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea eskuratzeko jasaten dituzten oztopo sozial, ekonomiko edo politikoen multzoa, gizartearen sistemari modu egokian ez integratzeagatik”. Nafarroan, hainbat dira definizio horren baitan sartzen diren marjinalizazio-egoerak, baina bada bat lege ezarrita dagoena, 1986tik: euskaldunon hizkuntza eskubideen zonifikazioa. Gizarte eskusioa gaitza bada, are eta okerragoa da diskriminazio hori lege ezarrita badago, horrek antza handiagoa baitu gizarte kolonialista batena, demokrazia formal batena baino. Hain zuzen ere, 1988. urtean, nafar gazte irudimentsu batzuek izena jarri zioten pairatzen ari ziren egoera horri: *Napartheid*. Ez zitzaizkien bidezkoa iruditzen beren etxean bertan baztertuak izatea, eta paralelismoa egin zuten urte haietan, Hego Afrikan, pertsona beltzak pairatzen ari ziren *Apartheid* izeneko erregimen kolonial gordinarekin.

Bada, 29 urte geroago, lege baztertzaila horrek indarrean jarraitzen du, baina baita kolonialismo orok berarekin duen nagusikeriazko eta segregaziozko pentsaera arrazistak ere. Aldaketa politikoa gauzatu nahian ari den honetan, metropoliko alderdien eta UPNko tradizionalista eta jauntxoaren diskurtsoek ez

dute aldaketarik izan. Areago, orain, erregimen zaharreko politikariek nagusikeriazko diskurtso antisoziala ekintzetara eraman dute, Nafarroako Gobernuak erabaki duelarik hezkuntzako lan deialdietan hautagaien zerrenda bakarraren alde egitea. Hezkuntza sailaren erabakia deuseztatzeak, helburu zehatzeko lege bat proposatu du PSNk, premiazko prozedura erabiliz, eta Ezkierda-Ezkerraren laguntzaz.

Zerrenda bakarraren aurka eginez, separatismo arrazista defendatzen ari dira; xenofobia linguistikoa hauspotuz, gizarte kohesioaren aurka ari dira, bandokeria indartuz. Gainera, lanerako eskubidea zalantzan jartzen ari dira, euskara ez jakiteko pribilegioari eutsi nahian. Alde orotatik da antisoziala. Baina Ezkierda-Ezkerrak ez du euskalgintzako eragileekin hitz egiten, ez dute beste argudiorik entzun nahi, eta beraingandik espero ez den jarrera totalitarioa eta antisoziala erakusten ari dira.

Gobernuaren erabaki aurreragarri hau babestu behar dugu, euskararen mesederako izateaz gain, gizartearen normalizazioaren onerako baita. Ezkierda-Ezkerraren jarrera baldintzatzea lortu behar dugu, kaletik. Entzun gaitzala. Hitzordua dugu, abenduaren 16an, eguerdian, Iruñean. Gizarte nafarraren kohesioaren eta normalizazioaren alde. ■

Tabula rasa



Itxaro Borda
IDAZLEA

slandiatik etorri zaigu, azken egunetan, Utopiaren soinu banda Björk erraldoiaren eskutik eta urtea bukatzen doala Axiari aita-semeek Joseba Irazokirekin, Omaha hiria- ren bihotzetik oparitzen diguten albuma, biak uztartzen ahal ditugu Eguberriko menskeria kontsumitzaileen hatzak ezabatzeko: buklean entzuten ditugu *Tabula Rasa* eta *Wounded Knee Prayer*... Egiaren errateko Oier Etxeberriaren *Locuela* sinetsi ezinak belarri zokoan dauzgula garunak alaitzeko!

Erakunde armatuak orain presoak beraien bi-deak azpatzeko aske utzi ditu, legedia komunak onartzera hots, hainbat urtez estatutu politikoa

aldarrikatu ondoan! Borroka galdua zela ikusi zukeen garaian bertan abandona zezakeen kartzelako gai hau. Arren, hurbildu daitezela presoak, atera daitezela atera behar dutenak eta hortik aurrera herri honen etorkizuna birpentsa dezagun kolektiboki eta guhaurrekiko begi kritikoa landuz, biolentzia eta bortizkeria jaiduren nostalgiarik gabe.

Elurak estaltzen ditu Reykjavikeko ilunpeak eta Springsteenek aspaldi abesturiko Nebraskako lautada hormatuak. Musikak salbatu gaitu betidanik. Aldion ere *tabula rasa* egitear gaudenean, melodia anitzek eramango gaituzte urratsez are harago. ■

Formatuak axola al du?

Saiatu naiz zutabea txioen formatua-rekin idazten. Ez dut lortu. Porrota. Baina berdin da, malgua izan eta hibrido batekin kontentatuko naiz.

Urteak dira H.rekin hizketaldi onik izan ez dudala. Nitaz duen erretratu mentalaren azpigitulua konbertsaziorako ezinezko bihurtu den ama.

H.: *Open mike*-etan aurkitzen ditudan gazteekin hitz egiten saiatzean, like-bo-toia eta komentario laburrak jasotzen ditut. Pantailan bezala.

H.: Telefonorik esku artean ez dute- nean ere, telefonoz ari balira bezala ko- munikatzen dute. Super jatorrak, baina ez dira gatazkarako gai.

20 urte ingurukoaren artean tipo bat: gizabidetsua, adeitsua, trebea dena ma- nera onak erakusten. Esajeratuz, horixe da ondoen egiten dakiena.

Ez dut esango ez dela abilezia bat, gaitasun garrantzitsu bat. Baina egoera batzuetan nazkantea izan daiteke. *Post millenial* ez denarentzat.

Online komunikazioak ezin du neu- troa izan, norabide batean edo bestean desbideratu behar du hizkuntzak. Bi aukerak: Bortitza edo adeitsua.

Ez dakit nola izango den gazte eus- kaldunen artean, ez dut kontakturik haiekin... Hemen ere gutxi. Kokatzeko: H. +50, ni -40, gazte ± 20 / *iGen*

Belaunaldien arteko harremanak... Non topa daitezke *iGen*-eko kideak? Fa- milia-inguruan, bikotearen edo lagunaren seme-alabak, unibertsitatean.

Arte irakasle bat bere 23 urteko ikas- leekin internetik gabeko etxe batean lau egunez. Gaia: Asperdura. Irakasleak dio: Ez dakite zer den.



Irati Elorrieta

IDAZLEA

Brecht-en gutunetan: asper-asper eginda dagoela. Benjamin: "Asperdura da ekintza handietarako atalasea". Zer- tara datoz Brecht eta Benjamin?

Bien adiskidetasunari buruzko era- kusketa bat dago Berlinen. Bere kutsu fantasmagorikoagatik, zentzu onean, burutik kendu ezinik dut eta, pertsona errealekin izandako elkarriketen erdian haien bien arteko harremanaren inguru- ko gogoetak zeharkatzen zaizkidan be- zala, hemen ere sartu zaizkit zirrikituren batetik. Leku piska-piska bat egingo diet.

Nola egin ziren lagun? Benaminek lagun komun bati Brecht aurkezteko es- katu zion. Lehen topaketa ez zen bereziki ondo joan. Beren inguruko askok ez zuen harremana ulertzen. Froga gisa, ondo- rengo kalifikatzaileak: zorigaiztokoa, ka- tastrofikoak, asimetrikoak. Gakoak diren bi aipu irakur daitezke: Lehiarik gabea zela adiskidetasuna eta ez zuela iraungo bien gizalege adeitsuagatik izan ez balitz. Adis- kidetasun "arriskutsu" baten emankorta- suna ikus daiteke museoan. Bi gizonak ez diote beldurrik beren denborakoak ziren gaiei buruz eztabaidatzeari: faxismoa, sexualitatea, marxismoa, Stalin, Kafka.

Museoko objektu bilakaturik, agian, adeitasunak murrizten ez duen sakon- tzeko gaitasuna.

Horretaz gain, harremanaren aztar- na fisikoetan: originalen indarra. Idaz- -makinen lorratzak paperean. Eskuz idatzitako gutunak eta oharra.

Txio berriek 280 karaktere. (Hemen- go txio-itxurakoek, duela gutxi arte bezala, 140). Benjaminen anbizioa: 100 letra koaderno-orri batean.

Gerra batek markatu zituen haien bizitzak. "Smartphone"-ak eta sare sozialek markatu dute *iGen*. Belaunaldi bakoitzak bere tsunamia bizi du. ■



Antton Olariaga

EUSKARA

GIDA.EUS

EUSKARAZko
PRODUKTUEN GIDA 2017-18

ALDIZKARIAK

KOMIKIAK

DVDak

APPak

JOKOAK

MUSIKA

LIBURUAK

GURASOENTZAKO MATERIALAK

EKOIZLEAK



www.euskaragida.eus

HARPIDEDUN IZATEAK badu saria!

Harpidetu **euskaragida.eus**
web orrian, eta hilabetero
ZOKKETAn parte hartuko duzu!

Hilabetero **BULETINA**
jasoko duzu produktu berriei

EUSKARA
ERABILI, OPARITU, KONTSUMITU...

LOZKETETA



* Hilabetero 50€-ko bonoen ZOKKETA,
Euskarazko produktuetan gastatzeko,
gurekin lan egiten duten liburu-dendetan.
Zozketa harpidedun guztien artean egingo da.

Amets Arzallus Antia:

“Finalerako sorpresa bat bera ere ez egotea izan da sorpresa”

Abenduaren 17an BECen ikusiko dugu zein izango den hurrengo lau urtez Euskal Herriko txapeldun. Gaur gaurkoz, Amets Arzallus da txapeldun nagusia: 30 urterekin jantzi zuen lehena eta bigarrenaren bila joko du igandean. BECen kantatu duen hiru finaletan gailurra zanpatu du: hirugarren egin zuen 2005ean, Andoni Egañak Unai Iturriagarekin buruz-buru arituta bere azken txapela jantzi zuen urtean; Maialen Lujabioarekin buruz-buru arituta bigarren geratu zen 2009an, lehen emakumeak txapela jantzi zueneko hartan; eta Lujanbioarekin buruz-buru arituta jantzi zuen Arzallusek 2013an. Finalean entzungo dugu lehen aldiz kantuan aurtengo txapelketan, eta beraz, kanporaketetako saioak gertutik jarraitu dituzten bertsozaleen inkognita nagusietakoa horixe da: “Nola ote dago Amets?”.



Kattalin Miner

@MKattalin

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Txapelketaren azken txanpan sartuta, nola zaude?

Ba ohiko plazako jardunean segitzen dut, normal. Neure burua hor entzuten dut eta hein handi batean probatu ere probatzen dut, baina nik ere badut gogoia neure burua nola dagoen jakiteko, zeren eta benetako momentua iritsi arte, eta txapelketaren estualdi eta estutzeko modu horiek guztiak presente eduki arte, ez duzu gehiegi jakiten nola erantzungo duzun.

Nola bizi izan duzu txapelketa orain arte?

Aski lasai, nahiko hurbiletik, saioetara joan naiz ahal izan dudana guztietan, eta orduan, barnatzen duzu pixka bat txapelketaren mugimendu hori. Beharbada, hainbeste joan naiz saioetara, azkenean tentsio horretara ohitu eta lasaitasun puntu batez segitu ditudala azken finalerdiak.

BECeko argazkia osatu da, eta esan deza-kegu aldaketa eta sorpresa handirik gabe osatu dela.

Niretzat sorpresa bat bera ere ez egotea izan da pixka bat sorpresa. Hau da, finalista denak pasa dira finalera eta hori ez da hain erraza; final laurdenetatik datorrenak tentsioaren zama luzea dakarrela uste dut eta finalerdietan beharbada besteak freskuraren abantaila baduela, baina hala ere, finalistarik ez erortzea ez da batere-batere erraza. Nik ikusi ditut, finalistei buruz hitz egiten hasita, denak ere finalerdietan beren burua aski ongi defendatu dutela, ez dira txapelketako egoera guztiak errazak, eta aski ongi ikusi ditut kantukideak.

Esan dezakegu ondo prestatuta etorri direla, baina txapelduna, nola prestatzen da?

Egia esan, nahiko bakartia naiz nire



prestatuntzan eta nahiz eta bertso-eskolan txapelketako simulazio bat egiten dugun, ez naiz asko aritzearen zalea, nahiz ondo datorren kontrastatzeko zure prestakuntza bakarti hori.

Kasu honetan nahiko bakarrik aritu naiz prestatzen, etxeko lanetara zentratua, neure gogoetak, neure irakurketak, idazketak egin ditut eta bertsoaren forma aldetik esperimendazioak... Neure lantxo horiek egin ditut eta ez naiz gehiegi elkartu ingurukoekin.

Akorduan daukat orain lau urte Aitor Mendiluzek agurrean hala esan zizula: “Txapela badoa eutsiko dion kaskora”. Nola bizi izan du kasko horrek txapelaren zama?

Gogoratzen naiz, hasieratan batez ere, pixka bat neure burua estutzeko joera hartu nuela eta horrek saio ostetan indigestio batzuk eman zizkidala. Hasieran,



geure harremana pixka bat gatazkatsua izan zen eta nik uste denbora behar izan dudala doitzeko, egokitzeko, eta neuk ere gauzak lasaixeago hartzeko, eta esango nuke txapelaren itzal puntu horri bake pixka bat eman diodala, eta lau urteren ondoren, elkarbizitza nahiko onean iritsi garelara honaino.

Nola ikusi duzu txapelketa? Zein usain, zer temperatura hartu diozu aurtengoari?

Forma eta diskurtsoaren eztabaidan sartuz, uste dut azken urteetan bai izan dela ondorengoengan joera bat forma aldetik eta teknika aldetik bertsogintza oso teknifikatua egitekoa. Hain teknifikatua, bertsoaren inguruko hainbeste aldamio, ezen aldamioen atzekoa nekeza baitzen ikusten –exajeratuki esanda–. Eta nik uste dut pixka bat kontrako joera bai sentitzen dela, aldamioa pixka bat kendu, eta gehiago erakutsi

barruan zer esan dezakeen bakoitzak edo gaiekiko ikuspegiaren eta hori ildo interesgarria da. Gero bakoitzak ditu bere gustuak eta bere motibazioak eta horiei segitzen die.

Sarri “belaunaldi berriez” hitz egiten dugu, baina, zertaz ari gara? Zein da zehazki belaunaldi berri hori?

Izan liteke bertsogintzaren joera desberdin bat dakarren belaunaldi baten kontua, nik ez dut uste modu hermetiko batean horrela denik ere. Belaunaldi gazteagoetan adibidez, gaur egun puri-purian dagoen gai bat aipatzeko, diskurtso feminista bat dago eta horrek badu bestelako bisualizazio bat, bestelako espazio bat, ikusten da kezka hori presente dagoela, eta gaietara erama-na dagoela, baina uste dut belaunaldi zaharretik badatorrela bidea zabaltzeko lan hori.

» “Nahiko bakarrik aritu naiz prestatzen, neure gogoetak, irakurketak eta idazketak egin ditut eta bertsoaren forma aldetik esperimentazioak...”

» “Bertso bakoitzak bizi garen garaiaren lekukotasuna ematea zor du”

Elkarriketa osorik ikus-entzun dezakegu argia.eus webgunean, Zautela saioan, abenduaren 14tik aurrera.

Agian definitzeko modu ulergarriena izan daiteke, orain arte finalera pasa den belaunaldia eta orain arte finalera pasa ez den belaunaldia. Zeren eta bestela, esango nuke, plazan erreleboa emanda dagoela, belaunaldi berri hori lehengo batzuekin batera dabilela.

Gogotsu al doa Amets Arzallus BECera? Zer utzi eta kontatu nahi digu?

Bai, gogotsu noa, neure gogoetekin eta neure lanketak eginda, eta hori pixka bat azaltzeko irrikarekin. Gero, txapelketa oso-oso terreno mugatua da, ez da erraza han, egun batean, azaltzen zure pentsamenduen erradiografia general bat eta batzuetan esan nahi ez dituzunak ere ateratzen dira, eta hortik erradiografia ere egin diezazukete. Nire kasuan, uste dut jendeak aski ezagutzen nauela lehenetik –hurbileko bertsozaleak behintzat–, eta ez du beste pertsona bat aurkituko. Izatekotan, nahiko nuke sakonago iritsi, lehengo bertsokerari eutsi, oraingo garaira egokituta: garaiko testuinguru politiko, sozial, kultural eta orotara. Uste dut bertso bakoitzak bizi garen garaiaren lekukotasuna ematea zor duela, eta nik, bizi dugun momentu honekiko nire kezka eta niri zer pentsatua eman didaten gaietatik zer pentsatu pixka bat eragin nahi dudala. Eragiten badu bertsoren batek zer pentsatu tanta bat norbaitengan, eguna justifikatua gelditzen da. ■

Oholtzako zirrikituak

Susmatzen genuen, baina aurtengo Txapelketa Nagusiak baieztatu digu: bertsoak eztabaidarako ematen du. Irailean banatu genuen pastela, Kattalin Minerrentzat kroniken erdiak, Kepa Matxainentzat beste erdiak. Geroztik bakoitza bere kasa ibili da, eta, orain, finalaren atarian, berriro elkartu gara txapelketaren aitzakian han-hemen atera diren eztabaidagaiez patxadaz solastatzeko.

Kattalin Miner @MKattalin

Kepa Matxain @kmatxain

Ze inpresio orokor aurtengo txapelketaz?

Kepa Matxain: Iruditzen zait aurrez ezarritako kortse handi bat dagoela. Gaietatik hasita, oso markatuta dago ariketa bakoitzean nola kantatu behar den: zortziko handian seriotik, txikian arinkeria, puntu erantzunetan ahal duena salba dadila, hamarreko txikian edo seiko motzean ahalik eta arrazoirik potoloenak, eta kartzelan epika barra-barra. Gidoiaren puska handi bat, saio bakoitzaz espero daitekeena, aurrez idatzita dago. Horregatik sortzen dira sarri unerik ederrenak bertsolariek gaiari kontrapuntua bilatzen diotenean, edo kortse horretatik ateratzea lortzen dutenean. Adibidez, Sarriegik Irungo eta Iruñeko kartzelakoan asmatu zuen. Hiru bertso bikain josi zituen, umoretik, erakutsiz umoreak ere balio duela kartzelakorako, ez duela zertan egon zortziko txikirako erreserbatua.

Kattalin Miner: Iruditzen zait, batzuetan oso exigenteak garela eta beste batzuetan gauza gutxi eskatzen diogula txapelketari. Adibidez, uste dut sarri entzulea umore egarriz dagoela, baina ulertu da ezin dela eskatu txapelketa batean umoretik gehiegi, beste leku batzuk daudela horretarako, eta gero, kolpe txikienarekin ere, saioa lehertzen da. Hori irakurtzen jakin behar genuke.

Nola dago diskurtsoaren eta teknikaren arteko tentsioa?

K. Miner: Hemen galdera nagusia zera

da: diskurtsoa puntuatzen al da? Oraindik orain, formari puntuazio ona ematen zaio, eta noski, txapelketan gaude, baina badago talka bat, zer esate horretan. Gainera, hartzen badugu txapelketa gure kultur idiosinkrasiaren adierazpide bezala, eta egozten badiegu gure ordezkaritza moduko bat bertsolariei, eskatu behar zaie diskurtsiboki ere ekarpen bat egitea. Horrek zenbateraino balio duen BECen sartzeko? Txapela janzteko dena bete behar ote duen bertsolariak? Beste debate bat da.

K. Matxain: Ezinbestekoa da diskurtsoaren txip hori piztuta edukitzea, konturatzea mikrotik botatzen den mezuak zer indartzen duen, zer jartzen duen zalantzan. Gainera, azkenaldian ahots asko sumatzen ditut bertsolaritzari hortik begira. Baina "fondo-forma" eztabaidak gauza batzuk azaltzeko balio duen arren, zurrunegia iruditzen zait puntu batetik aurrera, zerbait desberdin esaten duena *de facto* zerbait desberdina esaten ari delako. Adibidez, Mauleko saioa ez zitzaidan gustatu. Diskurtsiboki aztertuta, ez nuen inolako mezu desegokirik edo hanka-sartzerik detektatu. Diskurtso hutsa ez den beste zera horren falta sumatu nuen. Beste adibide bat: zergatik dira onak Lujanbiok Irungo kartzelakoan bota zituen bertsoak? Transgeneroen gaia mahaigaineratu zuelako? Ala esan zituenak esan zituen bezala esan zituelako? Niretzat fokua hor jartzea da interesgarria, ze bestela



ematen du panfleto bat epaitzen ari garela, eta bertsoak, ona izango bada, ezin du panfletoan gelditu.

K. Miner: Hor gainera falazia handi bat dago, eta da pentsatzea gizartean "modan" dagoen gai bati kantatze hutsagatik txaloak irabazten direla. Hori ez da horrela. Arrazakeriaren gaia atera deza-kezu, eta ez inorengana iritsi, ez duzulako sinesgarri egin, ez duzulako enpatiarik sorrarazi, ez duzulako entzulea bere eserlekutik mugitu, eta horregatik ez ditu puntu gehiago irabaziko. Arriskatzeko bat egon behar du, ez panfleto hutsa bota. Hartzailea bestela posizionatuko ez den leku batera eraman behar duzu. Lujanbiok transgeneroen gaiarekin beste gauza bat egin zuen: pertsonaien bidez entzulea bera harritu zuen. "Uste nuena ez bada, zer da aurrean dudan hori?". Saioko irudietan ikusten da hiru bertsoetan zehar nola entzuleari burua



lehertzen ari zaion. Ez du hitz egin soilik transgenero horren bizipenetatik lehen pertsonan, bere trauma guztiez, baizik eta jarri dio aukera bat entzuleari jolas-teko. Eta horrela, diskurtsiboki eratu du gauza oso *kañero* bat. Horrek puntuak merezi ditu? Bai, baina horrela egiteagatik, ez gai hori ateratzeagatik bakarrik.

K. Matxain: Oso erraz irudika dezaket transgeneroei buruzko bertso progre bezain kaskar bat. Lujanbioren meritu-ua izan zen ertza topatu ziola gaiari, baina hurrengoan agian topatuko dio harrerako umeez kantatzean, edo Vatikanoko kardinalaz, edo Autogobernu Ponentziaz.

Pertsonaia sinesgarriak eraikitzen al dira?

K. Miner: Sinesgarritasunarekin erabat lotuta dago arriskatzeta. Nerea Ibarzabalek bezala, haur baten azalean sartu eta argumentazioa jaistea minimora, esa-

nez “Pika-pika gehiegi jan dituzu-eta”; hori arriskatzeta da. Errazagoa da ume baten paperean jarri eta geuk esango genukeena esatea. Kontrapuntuan jarriko nituzke Beñat Gaztelumendiren Amurrioko bertsoak, dudarik gabe oso onak izan zirenak, baina 7 urteko ume baten pentsamenduak ez ziren horiek. Bertsoak izugarriak ziren, egoera oso ondo deskribatua zegoen, baina ez ote zen pixka bat izan geuk esan nahi dugun hori beste baten ahotan jartzea. Zilegi da, eta ahal dena egiten da, baina sinesgarritasun kontu bat da. Eta Labururen kamiseta ditxosozkoarekin beste horrenbeste, zenbateraino eraiki zuen hori esateko pertsonaia sinesgarria edo ez...

K. Matxain: Askorako eman zuen deba-te horrek. Niri zalantza piztu zidan, zenbateraino den posible fikzioa bertsotan. Batzuek azpimarratu zuten pintorearen rol bat zela, eta, hortaz, fikziotik

Iruñeko finalurrekoaren irudia, abenduaren 2an. Bertan jokatu zen azken finalurrekoa eta han ezagutu zen BECen abenduaren 17an finala jokatu duen zortzikotea: Amets Arzallus (laugarren finala izango du), Maialen Lujanbio (seigarren finala), Aitor Mendiluze (bosgarrena), Igor Elortza (laugarrena), Sustrai Colina (bosgarrena), Aitor Sarriegi (hirugarrena), Beñat Gaztelumendi (bigarrena) eta Unai Agirre (lehen finala).

ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ

ari zela Laburu. Argumentu horrek ez nau konbentzitzen. Entzuleen gehiengo handi batek ulertu bazuen une horretan Laburu ari zela kantari –eta ez pintorea–, nahiko frogatzen zait esateko bertsotan fikzioaren argumentuak ez duela hainbeste balio. Ze, bertsotan, entzulea ezinbesteko pieza da. Bertsoari ezin zaio aitortu pelikula, nobela edo munduko denbora guztiarekin ondu daitekeen zerbaiti adinako autonomia. Komunikazioaren oinarritzko eskemak dio: “Igorlea – mezua – hartzailea”. Bertsolaria da igorlea, bertsoa da mezua eta entzulea da hartzailea. Baina, era berean, entzulearen erreakzioak bertsolaria interpelatzen du, eta orduan, entzulea bihurtzen da igorle, bere txalo, txistu, barre eta abarrak dira mezua, eta bertsolaria da hartzailea. Bi norabideko komunikazioa da, gainera bat-batean ematen dena. Baldintza horietan, fikzio purua egitea oso zaila da.

K. Miner: Askotan ematen du hori kritikatzea dela umorearen kontra egitea. Eta ez, niri umorea izugarri gustatzen zait, baina uste dut, hain justu, umore ona, edo etikoa, edo politikoa egiteko, berdinen artean adostua izan behar duela, edo behetik gorakoa. Alegia, homosexual batek barre egin diezaioke hetero bati edo homofobo bati, baina alderantziz eginez, jada badauden botere harremanak ari gara indartzen. Umorea egin behar da kontzientzia eta ardura politiko batekin.

Zenbateko garrantzia eman behar zaie puntuari?

K. Matxain: Bada han-hemen entzuten den iritzi bat, dioena “tira, bai, hau txapelketa da, baina lehiarena bigarren mailako kontua da. Begira diezaiogun honek uzten duen kultur sorkuntzari”.

Txapelketari txapelketa izaera kendu nahi horrek kirrinka egiten dit, arrazoi askogatik. Zer esanik ez postu onetan ibili ohi den norbaitek badio. Dena dela, puntuak hitz egitea ezin da ulertu kirol logika hutsean. Puntuak ematen dute mila irakurketa egiteko bidea. Zer puntuatzen da altu? Zer baxu? Zergatik? Garai bateko kanonaren erakusgarri dira puntuak. Hor daude zazpi epaile, bertsolaritzaz luze gogoetatu duten zazpi buru, bertso bati zenbaki bat jartzen. Nola ez da interesgarria izango horretaz hitz egitea? Hori saihestu nahia iruditzen zait beharrezko eztabaida bat saihestu nahia.

K. Miner: Erabateko karga ideologikoa daukan balorazioa da, gainera. Denok onartzen dugu objektibo izatea ezinezkoa dela... ba hitz egin dezagun subjektibitate horretaz! Eta ikus dezagun zer ari den baloratzen. Eta, berme bat izateko, jar ditzagun subjektibitate desberdinetako epaileak bertan. Jar dezagun, hasteko, emakume eta gizon, erdi eta erdi. Edo adin desberdinetako jendea... Horrela izango dute oreka subjektibitateek, eta egongo da berme bat bertso-kera ezberdinak puntuetan jasota gelditzeko. Ze orain subjektibitatea onartzen dugu, baina subjektibitate batek irabazten die beste guztiei. Oso arriskutsua da hori, beti geratuko baita norbait ez duena kanon hori betetzen.

Zer moduz kronikari lanean?

K. Miner: Niretzat ariketa berria zen eta gustura hasi nintzen, baina onartzen dut azkenekoetan neure burua harrapatuta, kateatuta ikusi dudala, zaila egin zaidalako hainbat gauza kritikatu, esan edo azpimarratzea. Uste nuen kritikatzeko zailtasunak izatea euskal literaturan ba-

» KEPA MATXAIN:

“Puntuak ematen dute mila irakurketa egiteko bidea. Garai bateko kanonaren erakusgarri dira puntuak. Nola ez da interesgarria izango horretaz hitz egitea? Hori saihestu nahia iruditzen zait beharrezko eztabaida bat saihestu nahia”

» KATTALIN MINER:

“Umore ona, edo etikoa, edo politikoa egiteko, berdinen artean adostua izan behar du, edo behetik gorakoa. Alderantziz eginez, jada badauden botere harremanak ari gara indartzen”

karrik gertatzen zela, baina ohartu naiz bertsotan are zailagoa dela, eta horrek kronika txarragoak eginarazi dizkidala. Mundu txikia da, estima handia diozu jendeari, eta askotan gauza bat esan nahi eta ezinean gelditzen zara. Ez zait gustatzen egurra egurra emateagatik, baina banaiz eztabaidak mahai gainera ateratzearen aldekoa, eta ikusi dut neu-

re burua lotuta kritika egiterakoan, kon-turatzen nintzelako esaten nuen edozer irakurriko zela luparekin. Ez ote naitzen ni neu ere, bertsolariak txapelketan nola, enkortsetatuta ibili.

K. Matxain: Ni saiatzen naiz irakurri nahi nukeena egiten. Irakurle gisara, kronika bat irakurtzeko bost minutu hartu behar baditut, gustatzen zait kazetariak bere arrastoa uzten duenean. Noski, bustitzen bazara, beti dago arriskua jendeari ez gustatzeko, edo norbait mintzeko. Hori jakinik ere, iruditzen zait geure buruarekin zintzoak izan behar dugula, eta saiatu behar dugula pentsatzen duguna esaten.

K. Miner: Kritika eta komentarioak leku denetan daude. Txapelketa Nagusia, polemika da bere horretan, baina espazio publikora salto egiten duenean, itsusi bihurtzen da. Nola sortuko dugu diskurtso kritiko bat, edozer esanda beldurrez bagaude pertsonalki hartuko den edo ez? Batzuetan pasa gaitezke eta min egin, egia da, pertsonak gaude denaren atzean, baina neurri honetako kultur ekitaldi bati buruz izango ahal da eztabaidatzerik?

K. Matxain: Egia da kritika positiboak ikaragarri zabaltzen direla, eta hain positiboak ez direnek isiltasuna ekartzen dutela. Ematen du normalena litzatekeela denok elkarri losintxaka aritzea, eta norbaitek zerbait seinalatzen badu, kasu, edo bere burua debalde nabarmendu nahian dabil, edo seinalatu duenarekin afera pertsonalen bat dauka. Sintoma horiek hor diraute. Egia da kritikoari eska dakioken gutxienekoa dela errespetuz aritzea. Baina hori hala den unetik, kiroltasun pixka batez hartu behar lirateke. Dena dela, niri inguratu zaizkidanak modu onean etorri zaizkit, eta alde horretatik gustura nago. ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

BORDATXO



Zubiaurrenea, 5 behea · Usurbil

☎ 943 371 042

Marije

Arropa denda

Etxebeste, 3 · Usurbil
943 361 106
www.facebook.com/marijearropadenda

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

FINALA

BARAKALDO
Bilbao Exhibition Centre
Abenduak 17, 11:00



Aitor
Mendiluze



Aitor
Sarriegi



Amets
Arzallus



Beñat
Gaztelumendi



Igor
Elortza



Maialen
Lujanbio



Sustrai
Colina



Unai
Agirre

Antolatzailea



Laguntzailea



bertsozale.eus

Albano Dante Fachin

“78ko Erregimena hausteko modu bakarra alderdi independentistak bozkatzea da”

Kataluniako giro politikoaren protagonistetako bat da Albano Dante Fachin (Bahía Blanca, Argentina, 1976), Catalunya Sí Que Es Pot-eko diputatu ohia. Sorterria 16 urte zituenean utzi zuen familiarekin batera, Bartzelonara joateko. Osasun sistemaren ustelkeriaren kontrako aktibista ezaguna da eta 2004an, Marta Sibinarekin batera, *Cafè amb Llet* aldizkaria sortu zuen. Procés Constituent-eko kide izan ondoren, 2015ean izendatu zuten Podem Catalunya-ko idazkari nagusi. Kargua azaroan utzi du.



Saïa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Hilabete eroak dira Katalunian. Zer moduz zaude?

Oso pozik. Ez dago ezer deserosoagorik inkoherentzia baino. Eta azken bi hilabeteak zurrunbilotsuak izan dira, hain zuzen ere, barne-bilaketa baten baitan koherentea izan ala ez erabakitzen ari nintzelako. Baina, hartutako erabakia-ekin harro naiz, koherente jokatu dut. Atsedean hartu dut.

Azaroaren hasieran aurkeztu zenuen dimisioa. Zergatik?

Askotariko arrazoiengatik. Hasteko, arazoa modu organikoan hasi zen, Podem Catalunya-n ulertzen genuelako testuingurua ez zetorrela bat Catalunya en Comú-ren zerrendetan aurkeztearekin. Batez ere, tresna politikoa egituratzen ari zen modua ez genuelako konpartitzen. Horren ondotik etorri zen desadostasun politikoa. Zehazki, Kataluniako Gobernuak deituta zuen erreferenduma-ren atarian, Podem-eko oinarrirei gure jarrera zein izan behar zuen galdegin ondoren. Oraindik gogoan dut oinarrien

erabakia iragartzeko prentsaurrekoa eman eta minutu gutxira Pablo Echeniquek eta Pablo Iglesias-ek esan zutena: haiek katalanak balira, ez zuketela galdeketa parte hartuko. Azkenik, noski, 155. artikularen aplikazioaren ondotik, guk alderdi politiko guztiekin elkarrizketak egiten hastea komeni zela adierazi ondoren, Podemosek Katalunian esku hartu zuen. Orduan argi ikusi nuen hori ez zetorrela bat nirekin.

Kataluniako testuinguruak piztu zuen krisia Iglesias eta zure artean?

Noski. Katalunian independentistak diren eta ez diren arteko banaketa eginez, bere egin zuen 78ko Erregimena. Eta, urriaren 1ean eta 3an argi gelditu zen kaleak dardarka jarri zituzten milaka lagunaren artean independentistak eta independentista ez direnak zeudela. Ausartzen naiz esatera, urriaren 1ak status quo-an eragin handiagoa izan zuela, independentzia aldarrikapenak baino.

Bada uste duenik, hala ere, egun horietako elkartasuna hautsi zela independentzia aldarrikapenaren ondorioz. Ados al zaude?

Jakina da petsonalki asko kritikatu du-

dala DUIa. Baina, egia esan, independentzia aldarrikapenak ezertarako balio izan ez duela baieztatzea desegokia iruditzen zait. Zalantzarik gabe, independentzia aldarrikapenak astindu dituguk aspaldi astindu behar genituen Estatut egiturak. Horregatik, hanka-sartze ikaragarria iruditzen zait Catalunya En Comú-k 155. artikulua eta DUIa parekatzea. Are gehiago, jendea atxilotuta dagoen bitartean. Urriaren 1ean argi gelditu zen Kataluniako etorkizuna elkartasunaren bidetik doala. Eta desobeditu behar bada, egin egingo dugu.

Som Alternativa plataforma sortu duzu, kargua utzi zuten gainontzeko kideekin batera. Zein duzue jomuga?

Nire kargua uztea erabaki nuen ez nuelako izan nahi Madrilgo aginduak beteko zituen txotxongiloa. Eta egin nuenean, konturatu nintzen ni bezala, deskonforme zegoen jende gehiago ere bazegoela. Gure ekarpena biltzeko asmoz sortu dugu Som Alternativa.

Abenduaren 21eko bozak salbuezpene-koak direla erran izan duzu. Zer gertatuko da?

Hauteskunde hauek anormalak dira,



eta hori onartzen ez duenak Alderdi Popularraren helburua asetzen du. Horregatik, uste dut, independentista ez den jende askok independentziaren aldeko alderdiak bozkatuko dituela.

Zuk ere egingo duzu? Behin baino gehiagotan erran izan duzu ez zarela independentista.

Tira, niri ez didate sekula trabarik egin independentistek. Sekula ez dut independentismoa ekiditeko nahimenik

izan, besterik gabe, berdin zait. Hori bai, gaur egun argi dut 78ko Erregimena hausteko modu bakarra Katalunian alderdi independentistak bozkatzea izango dela. Independentismoa hausturarako lanabes bilakatu da eta sekula ez dugu halako aliaturik izango.

Alderdi independentisten bide-orriak porrotak izan ditu, hala ere, ezta?

Hor dago gakoa. Jakina da, hemen alboan dugun hemizikloan, behin baino gehiagotan kritikatu dudala Junts pel Sí-ren bide-orria. Independentismoak gogoeta egin behar du, egiten ari den bezala. Baina, kasu! Autokritika denon betebeharra da, baita Catalunya en Comú-rena ere. Agerian geratu da, euren proposamena noizbait adostutako erreferenduma egitea bada, ez dagoela inolako bermerik.

Zuk ere adostutako erreferendumaren aldeko apustua egin zenuen, duela gutti arte. Zerk aldatu du zure ikuspuntua?

Testuingurua erabat desberdina zen. Urriaren 1ean gertatutakoak aldatu du dena. Ezin dugu ahaztu, Parlamentura iritsi nintzenean Espainiako Gorteetako hauteskunderen aurreko kapituluaren ginela, eta ate bat zabalik zegoen han adostutako erreferenduma ahalbidetzeko. Erronka zaila bazen ere, zerumugan zegoen, behintzat. Orain testuingurua beste bat da, bi urte hauek balio izan baitute begien bistan jartzeko Rajoyren gobernuaren egitura blokeatzailea. Besteak beste, horregatik da garrantzitsua, inoiz baino gehiago, guk proposatzen dugun elkartasuna. Junts pel Sí-ren bide-orrian argi gelditu da independentistek ezin dutela bakarrik, eta guk ere ez. Kataluniak ez du elkartasuna ez den beste irtenbiderik.

Som Alternativa bitartez, alderdi independentisteen frontea sortzeko apustua egin zenuten. Porrota da hauteskunde hauetan alderdiak zerrenda desberdinetan aurkeztea?

Porrota baino, lastima dela esango nuke. Baina Mariano Rajoyk bere esku zegoen guztia egin du, elkartasun fronterik ez egoteko eta ez dugu denborarik izan. Aitzakia irudi lezake, baina errealitatea da. Kontuan hartu behar da hauteskundetara deitzea Generalitateko presidentaren eskumena dela, eta Rajoyk bozen deialdia egin du denbora bere alde iza-



teko. 155. artikuluaaren zaplastekoaren beste ondorio bat da, funtsean.

Egia al da CUPen zerrendan aurkezteko aukera izanik baztertu duzula lehen postuetan ez egoteagatik?

Ez, aukera hori ez da sekula mahai gainean egon. Hauteskunde deialdia egin zenean, egia da, Procés Constituent, CUP eta ERC-rekin solastu ginela. Gure erronka elkarrekin aurkeztea zen. Baina, berriz diot, Rajoyk zerbait ongi egin badu hori izan da hauteskundeak azkar deitzea. Ez dugu denbora nahikorik izan koalizioak osatzeko aukeraz behar bezala hitz egiteko.

Beraz, ERC edo CUPen zerrendetan parte hartzea ez duzu sekula aurreikusi?

CUPen zerrendetan aurkeztea ezinezkoa zen. Legealdi muga dute, eta horrek gauzak asko errazten ditu: euren diputatuek errepikatzen ez badute nola errepikatuko du euren ez den ordezkari batek? Tira, denbora honetan guztian behin baino gehiagotan galdetu didate ea zerrendetan aurkeztuko ote nintzen, eta hemeroteke hortxe dago, beti esan dut ezetz. Politika akordio zabalaren apustua eginga nuen bakarrik.

Baieztaatu izan duzu Catalunya En Comú-ren kanpaina ez duzula babestuko. CUP edo ERC-tik gertuago sentitzen al zara?

Egia esan, bai. Tira, Catalunya En Comú-ren eta CUPen gertutasun ideologikoa aspalditik dator, eta, ni ere gertu sentitu izan naiz beti. Eta, kasu! Kanpainan joera hori ere ikusten ari gara. CUP eta ERC dira, zalantzarik gabe, 155. artikuluaaren blokeari min handiena egingo diotenak. Eta, noski, ez dut Junts per Catalunya zerrenda aipatu, espazio politiko hori urrutikoa zaidalako.

Espainiaren eraldaketan sinisten jarraitzen duzu?

Hori izan da orain arteko nire apustua, baina, egia esan, Katalunian gertatu denarekin zalantzan jartzen dut orain baita aldaketaren aldeko udalen estrategia ere. Montoro legeak ezartzen duen sabaia zapuzteko, zer egingo dugu? Ada Colau, Manuela Carmena, Xulio Ferreira eta konpainiaren arteko bilera bat antolatu? Tira, egin dezakegu, eta seguruenik kartzelaratu ditzute guztiak. Baina, arriskatzeko prest al gaude? Egiteak merezi al du? Hala ez bada, zer egingo dugu orduan?

Onartuko al du Espainiako Gobernuak abenduaren 21eko bozen emaitza?

Ez, eta horregatik ezinbestekoa da alderdi independentistek irabaztea. Ez independentziazatik gertuago egoteko, baizik eta Mariano Rajoy agerian uzteko. Izan ere, alderdi independentistek irabazten badute, zer esango du Rajoyk Europar Kataluniak bere erronka berretsi eta hauteskundeak galduta dituenen? Susmoa dut, pairatu dugun errepresioaren ondotik jende askok kolpe bat emango duela mahai gainean, alderdi independentistak bozkatuz. Eta hori gertatzen bada, aukera egongo da 155. artikuluaaren aldeko blokeak hainbestetan erabili duen argudioa baliogabetu eta independentismoa herritarren erdia baino gehiago izateko. Ezin dugu ahaztu independentismoa %15etik %48ra iritsi den bezala, %55era ere iritsi daitekeela.

Tira, zer egingo duzu abenduaren 22tik aurrera?

Som Alternativa egitasmoan lan egiteaz aparte, ate birakarien kontua gehiagi landu ez dudanez horretan murgilduko naiz -barrez-. ■



DIEGO IBARRA SANCHEZ / NEW YORK TIMES

GIZARTE ZIBILAREN BORROKA ZABORRETIK DATOR LIBANON



Hegoi Belategi
@BelategiH

2015 arte Libanoko hondakin gehienak Naamehko zabortegira bidaltzen zituzten, hau da, hiru milioi eta erdi biztanle dituen herrialde bateko ia zabor guztia leku bakar batean biltzen zen. Espazioa eta denbora mugagabeak izango balira bezala, agintariek ez zuten konponbiderik bilatu zabortegia bete arte.

Libano Ekialde Hurbileko paradigma txikia da. Eskualdeko herrialde txikiena eta pluralena izanda, inguruko gatazka eta krisialdi guztiek eragiten diote. Gauzak horrela, libanoarrak desegonkortasunean bizitzera ohitu dira. Gatazka ugari bizi izan dituzte azken hamarkadetan, atzerriko armaden esku hartzeak, liskar etniko eta erlijiosoak... 2015ean gobernua erorarazteko zorian izan ziren milaka lagun, kaleak hartuta. Arrazoia gutxik aurreikusi zuen: hondakinen kudeaketa eredua.

Politikariak ez ziren gai izan zabortegi berriaren kokalekua adosteko eta bilketa zein birziklatze azpiegituren eskasia zela eta, hondakinak azkar pilatu ziren Beiruten eta haren inguruko Libano mendilerroaren inguruetan. 150.000 manifestari inguruk hartu zuten parte urte hartako abuztuko mobilizazioetan,

azken hamarkadako protestarik handienak.

Ezusteko handia hartu zuten askok, izan ere, afera ekologiko batek eragin zuen jendearen haserre, eta ez liskar etniko edo erlijiosoek. Hala ere, hondakinen kudeaketa sistema politiko ustel oso baten kontra egiteko aitzakia baino

ez zen izan. Eta Beiruteko mapa politiko-a aldatzeko balio izan zuen. Politika sektarioaz nazkatuta zeudenek Beirut Madinati (Beirut nire hiria) sortu zuten: agenda politiko ekologistaren bitartez, herrialde osoko politika aldatu nahi du alderdiak. Hiriburuan agintea du egun.

Betiko alderdien erantzuna axolagabekeria hutsa izan zen; arazoa kostaldean bi zabortegi zabalduz konpontzea espero zuten. Lehen Burj Hammuden zabaldu zuten, Beirut iparraldean dagoen auzo armeniarrean. Bestea hegoaldean, aireportuaren ondoan, eta txiste txarra badirudi ere, Costa Brava izeneko hondartza batean. Hainbat hilabeteko biziraupena ezarri zitzaizen bi hondakin-degiei, baina bi urteren ostean zabalik dira. Zaharrak berri Libanon.

Duela bi urteko mobilizazioak hainbat hamarkadako arduragabekeriaren ondorio izan ziren eta bi eredu kontrajarri zituen: gaikako bilketaren vs erraustegiaren aldekoak, Euskal Herrian aski ezaguna den eztabaida.

Zaborraren kostaldea

Burj Hammud eta Costa Brava ezohiko neurriak izan ziren, Cedar Environmental taldeko buru eta Zero Zabor Libano plataformaren eragile Ziad Abi Chakerrek dioenez. Libanoarrek argi dute zabortegien politikak ez duela etorkizunik eta eredu berrien bila dabilta.

Proposamen ugari egin dira, baina politika egiteko eredu aldatu arte norabide berean jarraituko dutela uste du Abi Chakerrek: "Alderdi gehienek erraustegiaren proiektua babesten dute, espekulatzen jarraitzeko modua delako. Hondakinen kudeaketa monopolioa den bitartean, etekin ekonomikoak lehenesten jarraituko dute".

Bi zabortegiak betetzen jarraituko dute gainezka egin arte. Burj Hammud Beiruteko auzorik populatuenerikoa da, eta baldintza higienikoak nabarmen okertu ahala geroz eta ohikoagoak dira bizilagunek eragindako suteak. Costa Bravako zabortegiak, berriz, kolokan jarri du aireportuaren bideragarritasuna, zaborrak ehunka kalatxori biltzen baitu. Hegazkinen motorrekin talka egiteko arriskua dela eta, behin baino gehiagotan neurriak hartu behar izan dituzte. Alarma akustikoek eraginkor izateari utzi diotenez, Costa Bravako hondakinak lurperatzen hasi dira, kostaldea are eta gehiago desitxuratuz.



Burj Hammudeko zabortegia, Beirut iparraldean.

CONSTANZE FLAMME / ZENITH

» Hondakinen kudeaketa sistema politiko ustel oso baten kontra egiteko aitzakia izan da Libanon

» Eremu pribatutik etorri dira oraingoz irtenbide saiakerak: herrialde osoan gaikako bilketa sustatzen duten kooperatiba eta enpresak agertu dira

Kudeaketa krisi baten ikur

Bi zabortegiak krisiaren ikurrak baino ez dira, Libano bera zabortegi erraldoi bihurtu baita. 10.000 kilometro koadro ditu -Euskal Herriaren erdia-, hiru milioi eta erdi biztanle eta geografia askotarikoa. Kostalde mediterraneoa, zedrozko basoak, 3.000 metroko altuerako mendiak eta basamortua. Tripolitik Tirora (163 kilometro) doan erre-pidean, itsasoa bezain urdinak diren milaka plastiko botila pilatzen dira bide bazterretan. Hirietan ez ezik, barnealdeko edozein herrixkatan ikus daitezke hondakinak botatzeko erabiltzen diren lursailak.

Herritarren jarrera asko hobeto behar da Ziad Abi Chakerren ustez. Hezkuntza faltaren ondorioz, "kexu diren gehienek ez dute birziklatzen", haren ustez. "Sentsibilizazio lan handia egin behar da oraindik; bestalde, birziklatu nahi dutenek baliabide gutxi dute". Birziklatzea borondate kontua da Libanon. Norberak bildu, sailkatu eta birziklatze gunera eramane behar du. Koloretako edukiontziak gutxi dira, eta nekez aurkitu daitezke auzo umiletan.

Gainpopulazioak ere ez du mesederik egiten eta bereziki larria da milioika errefuxiatuen egoera. 2011z geroztik Libanok milioi eta erdi siriar errefuxiatu hartu ditu, Nazio Batuetako Iheslarietako Goi Mandatariak (ACNUR) emandako datuen arabera. Hala ere, 2014. urtetik ez da zenbaketarik egin, herrialdeko oreka politiko-a ez harrotzeko asmoz.

Ezin dira ahaztu, bestalde, 1948tik Libanon dauden errefuxiatu palestinar-rak. Bi kasuetan, hondakinen kudeaketa ezak arazo higieniko latzak eragin eta gaixotasunak areagotu ditu. Shatila errefuxiatu gunean, adibidez, 40.000 lagun inguru bizi dira kilometro koadro erdian -datuak tentuz hartu behar dira, asko aldatzen baitira-. Ekialde Hurbilean palestinar errefuxiatuez arduratzen den UNWRA erakundearen arabera.

Deszentralizazioa konponbide

Arazoari tokian tokiko erantzuna ematea proposatzen du Abi Chakerren Cedar Environmental elkarteak: "Eskualde bakoitzak bere hondakinak kudeatuko

Manifestazioa Beiruten,
zabortegeien kudeaketa
txarragatik protestan.



NABIL MOUNZER / EPA

balitu sistema askoz ere eraginkorragoa izango litzateke, eta ustelkeria murriztuko litzateke”.

Herrialde osoko hondakinak monopolio baten menpekoak izatea sistema astuna eta motela da. Libanoko politikariek ez dute interes orokorra aintzat hartzen, bakoitzaren komunitatearenak baino. Sistema politiko sektario hori aldatu ezean, hondakin afera okertuko dela uste dute eragile ekologistek.

Hala ere, deszentralizazioaz haratago doa Ziad Abi Chaker, gaikako bilketaren aldeko apustu sendoa egin baitu azken urteotan. *Mr Zero Waste* goitizenez ezagutzen dute ekintzailea, hondakinak eskain ditzaketen aukeretan sinisten duelako: “Nire arrakasta zaborretik dator”.

Oso kritikoa da Abi Chaker estatu eta erakunde publikoekiko. Estatuaren papera populazioaren ongizatea babestea eta giza eskubideak bermatzea da, bai-

na Libanon politikariek aukera horri muzin egiten diotela uste du. Aldaketa behetik etorri behar dela dio, “alderdiek jendearen eskariei jaramonik egiten ez dienean, gizarte zibilak inprobiatu behar du”.

Ekimen pribatuak arindu du gaitza

Bitxia badirudi ere, gizartearen ongizatea helburu duen sistema ekimen pribatuaren ondorio da. Cedar Environmentalak udalekin batera egiten du lan. Sistemaren eraginkortasuna agerikoa da bere esanetan; Beit ed-Dine hirian adibidez, Chouf eskualdean, kalean pilatzen diren hondakinak nabarmen murriztu dira, zabor tasek behera egin dute eta gainera lanpostu ugari sortu dira.

Cedar Environmental ez da aldaketaren alde egin duen bakarra; Libano osoan gaikako bilketa sustatzen duten kooperatiba eta enpresak agertu dira, tartean oinarri sozial nabarmena duen Recycle Beirut. Siriako eta beste herrialde batzuetako errefuxiatuekin egiten du lan.

Libanoko hondakin krisialdiak txanponaren bi aldeak erakutsi ditu. Batetik, kudeaketa arduragabearen ondorio ekologiko eta sozialak agerikoak dira, eta ez dirudi agintariek gauza asko aldatzekotan direnik. Bestetik, gizarte zibilarren boterea ezagutu dute libanoarrak; estatuaren babesa jaso ezean, euren gain hartzeko prest daudela erakutsi dute askok. Erraustegiaren proiektua aurrera doa Libanon, baina gizartearen parte handi baten oposizioa ere. Duela bi urte hiritarrek gobernua bertan behera utz zezaketela erakutsi zuten. Ikusteko dago zein erantzun emango dioten erraustegiari, eta hortik zer ikas daitekeen. ■

Gabonak euskaraz haur eta gazteentzat!

MATRIKULA ZABALIK

www.gazteola.eus

Gazteola*
Haur eta Gazteak

Bilbo erdian

euskara eskola
antzerkia · euskaraz jolasean
sukaldaritza · dj tailerra

Philippe Blanchet

“Arazoa ez da linguistikoa, soziala eta politikoa baizik”

Marseilla, 1961. Soziolinguista irakaslea. *Glottofobia* hitzaren sortzailea da. Rennes-2 Unibertsitateko irakaslea eta *Discriminations: combattre la glottophobie* saioaren egilea. Hendaian emandako hitzaldian, frantses hizkuntza zuzen eta azentu egokiz mintzo ez diren hiztunenganako diskriminazioa eta mespretxua salatu du irmoki: “Glottofobiak gure ikuspegia lausotzen du, baita kultura trakestu ere”. Frantziako Errepublikako hizkuntzaz jardun du bereziki, baina ez soilik.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: ELSA SPIZZICHINO

Philippe Blanchet soziolinguista da. Poliglota. Proventzako (Okzitania) familia bateko semea, proventzala eta frantse-sa ditu eguneroko hizkuntzak. Kontent dago *glottofobia* eleak jaso duen arreta dela eta.

Hizkuntzaren eta jendearen arteko harremanaz mintzatu zaigu. Sistema sozialek hizkuntzetan duten eraginaz, euren arteko indar korrelazioaz eta instituzioen eta elkarte sozialen jarreraz: “Ez dago jendarte elebakarra, heterogeneoa da, eta nagusi den hizkuntza –frantsesa kasurako– ez da modu berean mintzatzen. Konfrontazio linguistikoa bizia da, jendarte osatzen duten pertsonen arteko berezitasunen adierazlea, pertsonak ezberdinak garelako, era diferentean mintzo garelako, beste gisa batez bizi garelako”.


Hizkuntza praktika sozial gisara aztertutako Blanchet, eta hiztunoi halaxe begiratzeko gomendioa eman ere, hots, jendeok partekatzen dugun fenomeno sozial gisara. Hona lehen konstatazioa: “Hizkuntzaren praktika ez dago legeak babestua, ezta euren aniztasuna ere. Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten

duten lurraldeetan agerikoa da diskriminazioa”. Bera elebitasunean bizi da. Familian proventzeraz hitz egiten dute: “Nire amatxi justiziak punitua izan zen probentzala mintzatzeagatik!”. Glottofobia konbatitu behar dugula erran digu ozenki. Frantzian ez direla herritarren eskubideak zaintzen ez errespetatzen, eta horrek arazo etiko izugarriak sorraziti dituela: “Herritarren engaiamendua ezinbestekoa da, gizarteak inplikatu behar du arazo honen aitzinean”.

Eremu-ikerketak

Frantziako lurralde askotariko alor sozialen, instituzioen eta hautetsien jarduerari segimendua egin die, baita Twitter bidez zabaldutako hamaika txio aztertu ere. Eremu-ikerketek “ilea lazteko gisako jarrera glottobikoak” agertu dituzte. Bi konstatazio: arazoa estrukturala da, eta jarrera glottobikoak norberarenak dira. Hona, hamaika “perla”-ren artean “bitxikeria” zenbait:

Rennesko Hizkuntz Akademiako presidenteari idatzi dio bretoieraz. Erantzuna: “Errepublikan ezin da frantsesez ez den



beste hizkuntza batean idatzi”. Legearen aginduz harago, joera sarkastikoak ere aipatu zituen Blanchet, hala nola, Christiane Taubira ministro sozialista ohia: “Inkesta bat agindu zuen Taubirak, ea frantses populazioak berresten ote duen lantokian bi lagunek ‘erregio-ko’ hizkuntzan hitz egitea. Afrusa da eta harrigarria, herritarren hizkuntz eskubideak justiziak babestuta daudelako Europan. Justizia ministroak, demagun, beltzek edo elbarriek lan egin dezaketen galdetuko al luke? Ikaragarria da”. Proventzako irakaslearen iritziz, “hizkuntzen eskubideei buruz pentsatzen eta erreakzionatzen ikasi behar dugu”.

Ignorantziak ez du mugarik, ezta “jakintsu”-arenak ere. Michel Onfray filosofoaren txioak haxe zioen: “Korsikeraz edo bretoieraz nola esango dute telefono edo ordenagailu hitza?”. Telefono hitza grekoa da. Frantsesez hartaz, esan ere ezin: “Maila horretako pertsona batek errana da. Zuek euskaraz ezin dituzue beraz hitz horiek erabili, ez omen dituzue eta. *Non comment!*”.

Hezkunde Nazionaleko ministro ohi Claude Alegate-ren txioa ere durduza-



tzeko modukoa da: “Hobe da informatikariak frantsesez edo ingelesez formatzea, baina ez hizkuntza erregionalean”. Hots, euskarak artzaina izateko balio du, baina informatikaria izateko ez. Hala berean, Emmanuel Macron presidentea, iragan irailean, Parisko *banlieu*-etako eskoletan bisitan zebilela errana: “Gaztelu honetan erregeak erabaki du berean bizi diren guztiek frantsesa hitz egin behar dutela”.

Blanchetek: “Presidenteak eskubiderik al dauka hori adierazteko? Groteskota da”. Gainera, errana Twitterrez zabaldu zuen. Blancheten aburuz, Macronen hitzetan “identitate nazionala” ezartzeko asmoa begi-bistakoa da.

Glotofobia: diskriminazio soziala

Pertsonak modu ez parekatuan tratatzean, jendeon arrazakeria eta xenofobia azaleratzen da. Sexu joerarekiko diskriminazioa homofobia da. Diskriminazioaz ari gara. Joera horiek ez dira legezkoak, justiziak punituta daude. Diskriminazio linguistikorekin berriz, ez da berdina jokatzeko: “Jendeak ez du ikusten diskriminazio linguistikorekin

» “Frantzian ideologia linguistikoa dago. Genozidioa izan da. Jendeak deskalifikatu ondoren, beren hizkuntzak deskalifikatuak izatera pasatu dira”

atzean pertsonak daudela. Arazoa ez da linguistikoa, soziala baizik. Urteak dira glotofobia hitza ‘asmatu’ nuela. Terminoa zabaldu da, baina arazo linguistikoa dela esatea ‘aitzakia’ baino ez da, arazoa soziala eta politikoa delako. Beraz, kontzientzia ernatzeko, gauzei diren bezala deitu behar zaie”, diosku Blanchetek.

“Diskriminazio linguistikoa aintzakotzat hartua al dago juridikoki?”, itaundu digu soziolinguistikak. Hona bere azalpena: “1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak pertsona babesten du, baina ez du bermatzen tribunalean aurrean. Artikuluak gutxiengoan alde

egiten du. Frantziak 1991n sinatu zuen testua, Konstituzioaren 27. artikuluan dago, baina ez du artikulua berretsi, ez da engaiatzen frantsesa ez den beste hizkuntzen defentsan”.

Europako legediak diskriminazioak debekatzen ditu. Frantziak konbentzioa sinatu zuen, baina bi artikulua kanpo utzi ditu. Konbentzioak haur guztiak edozein dela mintzo diren hizkuntza babesten ditu. Hezteko eskubidea daukate edozein dela beren hizkuntza. Frantziak, al-diz, frantsesa mintzatzera behartu ditu, ez da legezkoa, baina egiten du. Legeak honela dio: “Estatuak familia horren kultura eta hizkuntza bermatu behar ditu. Haurrari lagundu behar zaio eta bere kolektibitatearen baloreak integratu eskolan”. Etorkinen seme-alabez ari da irakaslea.

“Zein da hizkuntza ofiziala? Frantsesa. Nazionala. Bakarra. Ni beste hizkuntza batean mintzo naiz, proventzera, Errepublikatik kanpo al nago? Hori ere ez da garbi. Legeak ez du esaten ere ‘Frantziako hizkuntza ofiziala frantsesa da’. Aitzitik, dio: ‘Errepublikako hizkuntza frantsesa da’. Estatuaren formulazio horrek laguntzen du ideologia linguistikoa eraikitzen, hizkuntza horren zentraltasuna eta sakralizazioa sustatzen, eta gainerakoak deskalifikatzen”.

Blancheten arabera, “Frantzian ideologia linguistikoa dago. Genozidioa izan da. Jendeak deskalifikatu ondoren, beren hizkuntzak deskalifikatuak izatera pasatu dira. Eskola eta hedabideak direla medio jendeak asimilatu dituzte, baita kolaboratzaileak bihurtu ere”. Ama hizkuntza hizpide, hezkuntza sistemak frantsesa pertsonen buruan nola sarrarazi duen ikustea izugarria dela erran digu, beste hizkuntzarik ez balego bezala: “Areago, zenbaitetan, gure ama hizkuntza frantsesa dela sarrarazi digute buruan”. Ipar Euskal Herriko aitatxi-amatxien kasua azpimarratu zuen.

Gomendioa: diskriminazio glotofobiakoaren aurrean herritar bakoitzak ikasi behar du erreakzionatzen. Biktimak babesten, baita biktimak ez dugula izan nahi agertzen ere. Bestela eragile bihurtzen gara. Zelatan egon behar dugu, glotofobia ez izateko. Gutxienez horretaz ohartu behar dugu, eta ari gara poliki. Ez da gutxi. Hizkuntzen joera transbertsalak sustatzen ahalegindu behar dugu, gizartea glotofobia baita neurri handi batean, xenofobia den gisa bertsuan. ■

Ankiloglosia

Mihi-hariaren eragina ahoan eta ahoskeran

Organo bat gorputzeko berezko lekutik gehiegi ez aldentzea ekiditen duten tolestura txikiak dira galgatxoak. Ahoan ditugun mintzak dira. Hiru dira eta motzak baldin badira, ondorioak ekar ditzakete.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Goiko eta beheko ezpainenetik hortzoietara iristen direnak eta mihi-hari edo mihipeko galgatxoa bereiz ditzakegu ahoan. Behekoa da arazorik ematen ez duen bakarra. Goikoaren eraketa desegokia bada, adibidez, erdiko hortzak banantzea ekar dezake eta hozkatzeko moduan eragin. Maider Eginok logopedak, ordea, mihipeko galgatxoaren gorabeheraz mintzatu zaigu, arazo gehien ematen dituen baita.

Esan bezala, galgatxoa motza izateak ondorioak ekar ditzake, mingainaren berezko mugimendua muga dezakeelako, behar beste luzatzen uzten ez diola-eta. Ankiloglosia edo mihipeko galgatxo motza deitzen zaio horri. "Jaioberriek ahosabai altua eta estua dute eta mihiaren mugimenduak egiten du jaitsi eta zabaltzea. Mihiak mugitzeko aukerarik ez badu ez da aho barruko aldaketarik emango eta ahoko egitura guztia kaltetuko du", azaldu digu Eginok. "Ahosabai altu gelditzean, koanen (sudur-zuloen zabalera) diametroa txikiagoa izango da eta horrek ahotik arnastera behartuko du. Ahoa irekita lo egin eta zurrunga eragiteaz gain, haizea filtraziorik gabe sartuko da ahotik biriketara. Hotzagoa ere badenez, bronkitis,

neumonia eta otitisak hartzeko arriskua handituko da".

Era berean, hortzen itxiera eta ahoskera desegokiak ekar ditzake. Hortzak ateratzen direnean, banatuta edo pilatuta izateko gakoetako bat izango da ahosabaiaren eraketa. Gerora aparatu beharra antzemango da; halaber, denborarekin dislalia eta hainbat hizkiren ahoskera desegokiak eragingo ditu, "mihi punta ez baita artikulazio puntu egokietara heltzen letrak ongi ahoskatzeko".

Jaioberritatik jakin daiteke, beraz, galgatxoaren tamaina motza ote dugun. Ordutik hasiko dira kalteak. Amaren bularrera heltzeko zailtasunak, kolikoak eta gehiegizko gasak eragin ahal dizkio, esne kopuru gutxi hartzeaz gain. Amari ere tiburuak mindu eta zauritu dakizkioke.

Kalterik ez eragiteko, arreta lehenbailehen jartzea gomendatzen du logopedak. Mihiaren mugimendua begiratu beharko da: ezpainenetik kanpora irte ote den, ahoa irekita egonik ahosabai iristen ote den, deformatu gabe alde batetik bestera mugitzen ote den... Behin logopedak diagnosia eginda, otorrinolaringologoarengana bideratuko du eta honek galgatxo motzak kalterik eragingo dion ala ez esango dio.

Moztu ala ez?

Mihiaren mugimenduak lantzeko ariketak badira, baina galgatxoa, normalean, ez da haziko, ez duelako zuntz elastikorik. Zein da konponbidea? Har daitekeen erabakietako bat galgatxoa mozte da, baina Eginok kontatu digunez, eztabaida pizten du batzuetan. "Mediku batzuek diote lehenbailehen mozte hobe dela arazo horiek guztiak saihestuko direlako". Gainera, ebakuntza erraza denez, txiki-txikitan haurra lokartu beharrik ez dagoela gaineratu du. "Txiki-txikitan mozten bada ez da ebakuntza, oso erraza da. Eragozpenak ekarriko badizkio, dudarik gabe jaio eta berehala moztuko nioke". Ondo moztuta badago, ez du ondorio negatiborik. Horretarako, lehenik, eragin dezakeen kaltea balortzea ezinbestekoa da.

Seme jaioberriari mihi-harian ebakia egin zioten aita batek kontatu digu medikuek horixe esan ziotela, hobe zela lehen egunean bertan mozte, "erraz" egin daitekeelako. "Aurrerago, auskalo". Besteren artean, azaldu zioten hizkeran eta esnea hartzerakoan eragina izan zezakeela mihi-haria ez ebakitzeak. "Di-da batean egin zuten, labana moduko batekin". ■



HORRA! OLENTZERO ONGI ETORRI FESTA



abenduak 23

12:00etan Zentralen

sarrera: 3€ aldez aurretik
5€ bertan

[Saltokiak: Karrikiri eta euskalerriairratia.eus]

**Olentzero gurekin
izanen da!**

Haurren aktuazioak
Pantxika Lamur
Oskar Estanga
Iruñea

Glifosatoarekin gezurra ari du



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Negozioaren nekazaritzak irabazi du. Salerosketaren uza gailendu da Europan, eta etekinari, soilik etekinari begira lanean ari direnek ziria sartu digute. Beste bost urtean glifosato hiltzailea jan beharko dugu. Glifosatoa hiltzailea da, bai; izan ere, belarrak hiltzeko asmoarekin erabiltzen da, baina belarrak hiltzen dituenak zer ez ote du hilko?

Mundu osoan nekazaritzaren alorra gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari da. Etorkizuna eraikitzeko estrategikoa da. Aurrerantzean, gerrak ez dira irabaziko diruarekin, armekin edo ejertzitoekin, gosearekin irabaziko dira. Dirua pilatzen duten multinazionalak lurrak eskuratzen, ura pribatizatzen, hazien erabilera patentatzen, transgeniko kutsatzaileak hedatzen, ongari sintetikoak eta pestizida hiltzaileak behar dituzten landare aldaerak sustatzen eta abar ari dira. Bidea argia da: berdin da lurra hiltzea, berdin da ingurumena kutsatzea, berdin da bioaniztasuna agortzea, berdin da gero eta jendarte gaixoa goa izatea; guk patrikak beteta ditugu, gero eta beteago, gainezka.

Garai batean nekazaritza industrialak deitzen genion, aspaldi aldatu genion izena; orain nekazaritza kapitalista da. Nekazaritza horrek ez du elikagairik ekoizten; dirua ekoizten du. Mozkina ez da ogia, mozkina sosa da, dirua. Eta diru-goseak mugitzen du Europa.

“Iraultza berdea” saldu ziguten duela mende erdi bat baino gehiago, nekazaritza industrialak bere kimika eta pozoi guztiekin munduko gosea berdinduko zuela. Eraitza gose den mundu erdiaren eta gaixo den beste erdiaren ahotan dabil: klima aldatzen, lurrak antzutzen, pobrezia areagotzen, planeta erretzen...

Glifosatoa da guda hori ondoena isaltzen duena. Sekulako herbizida indartsua da, nekazariaren lana arintzen du, eta hura erabiltzea eskatzen dute; or-



AQUA MECHANICAL

Nekazaritzan eta lorategietan “belar txar” direlakoak hiltzeko ez ezik, beste gauza batzuetarako ere erabiltzen da glifosatoa. Esaterako, trenbide ertzetan hazten den belarra akabatzen. Urdaibaiko Biosferaren Erreserban egindako argazki honetan (eskuman) argi bereizten da glifosatoz blaitutako bazterra.



dainetan, gu denon etorkizuna kixkaltzen ari gara. Nekazari horiek badakite hiltzailea dela, bere ondorengoen lurra eta etorkizuna erretzen ari direla. Administrazioako enpresetako teknikariek okerragoa da: urrutiko bulegoetan erabakitzen dute trenbideetan –argazkian bezala–, errepideetan, espaloietan nahiz plazetan glifosatoa erabiltzea. Eta zientzialariak, zurtasunaren zurtitzaileak.

2015ean eman zuen Osasunaren Mundu Erakundeak epaia, Minbiziaren

Ikerketarako Nazioarteko Agentziaren bitartez: seguruenera, minbizi-eragilea da glifosatoa. Ikaragarritzko mugimendua sortu zen haren erabilera galarazteko; milioi bat sinadura baino gehiago bildu ziren. Alferrik. Europa diruzaleak irabazi du.

Ez etsi, hala ere. Gure esku dago: ekologikoa jan. Eta Europara begiratzeari utzi, eta aldamenean dugun zinegotzi, alkate, diputatu, teknikari, nekazari eta abarri kalakan hasi: bizi behar dugu, glifosatorik ez! ■

LURZAINDIA

Lurrak ondasun kolektibo



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: LURZAINDIA

Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiliak izan diren lursail ugari ari dira azken urteetan galtzen Euskal Herri osoan: laborantzaz batere interesik ez duten lur erosleek bestelako ideiak dituzte espazio horietarako. Horren aurka dihardu lanean Ipar Euskal Herrian Lurzaindia kolektiboak. "Lurzaindiak egiten duena, bere izenak ederki esaten duen

bezala, lurra zaintzea da. Espekulazioaren kontra borrokatzen gara, partikulari", azaldu digu Dominique Amestoy kolektiboko kideak.

Lurrak kolektibizatu, hura lantzen dutenek erabiltzeko

2013an sortu zuten Lurzaindia lehen sektorearen borrokari lotuak diren lau egiturek: ELB laborantza sindikatuak, Arrapitz federazioak, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak eta Amap laborantza iraunkorrerako elkarteak. Lurzaindia bera sortu baino lehenago, bazegoen Lurra izeneko elkarteak, gazteak plantatu ahal izateko etxaldeak erosteko lanean ziharduena.

Baina nola kolektibizatzen dituzte lurrak? Urte osoan diru bilketak egiten dituzte, salgai dauden lurrak eta laborari etxaldeak erosi eta horiek Lurzaindiaren proiektura batu ahal izateko. "Guk erosten ditugun lurrak ez dira inoiz berriz salduko, merkatutik kenduko dira behin betiko", dio Amestoyk. Epe luzerako alokairuen bitartez laborari gazteei beren proiektuak aurrera ateratzeko aukera ematen die Lurzain-



diak lur horietan, merkatu espekulatioari aurka eginez. Diru bilketetako irabaziak kudeatzeko Erne egitura dute martxan: "Erneko kideek dute diruaren kudeaketaren zama, baita zer erosi behar den eta zer ez erabakitzearena".

Egindako lanaren fruituak

Lurzaindia sortu zenetik, lurren beste erabilpen batzuetarako 35 bat saltze gibelaraztea lortu dutela azaldu digu kideak. Frantziako Safer egiturarekin aritzen dira lanean lurren prezioak egoiak direla ziurtatzeko eta beharrezkoa denean horiek erosteko. Orotara, 400 lur hektarea ingururen eta 20 etxalderen jabe da egun kolektiboa, eta horietan lanean dihardute 29 laborarik. Lurraren eta Lurzaindiaren diru bilketetan, berriz, 3.500 bat akziodunek hartu dute parte urteotan. Ez dira zenbaki makalak.

"Momentuz Iparraldean soilik ari gara, baina gure araudietan jarria dugu Hegoaldera ere hedatzea posible dela, hango laborarien sostenguekin noski. Euskal Herria orokortasun batean hartzea, alegia", dio Amestoyk. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Abenduak 14: Gernika-Lumo

18:30etan Astran *Landareak Lantzen* gida -liburuaren aurkezpena.

Abenduak 18: Gasteiz

18:00etan Zabalganako gizarte etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena.

Abenduak 20: Bilbo

19:00etan Ekoetxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 23: Oñati

11:30etan Gaztetxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 28: Zeanuri

18:30etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 29: Ormaiztegi

18:00etan Zumalakarregi museoan *Alta Porru* Komikihitzaldia eta kontsultategia, Jakoba Errekondoren azalpenak eta ilustratzaileen zuzeneko irudiek.

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"ENERGIA TRANTSIZIOAK. PIZTU ALDAKETA!" DVD-A

3

Elkarren borroketatik ikasten

Egungo energia eredu ekologikoki jasangaitza eta sozialki bidegabea da. Baina badira munduan zehar honen aurka borrokatzen eta alternatibak martxan jartzen ari diren pertsonak eta taldeak. Dokumental hau, Euskal Herritik abiatuta, Ipar eta Hegoaldeko zenbait esperientziatara hurbildu da, haien bizitza proiektuak, erresistentziak eta proposamen politiko eta kooperatiboak ekartzeko. Katalunia, Ekuador, Kuba, Brasil, Euskal Herria eta Alemaniako esperientziak kontatzen ditu. Euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez azpiztitulatuta dago.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EKOLOGISTAK MARTXAN

Ekologia sozialean diharduen taldea, alegia, ingurumen arazoan jatorria ekoizteko eta kontsumitzeko modua dela dioena.
www.ekologistakmartxan.org

#energiaereduak
#ekologismoa
#klima_aldaketa
#justiziasoziala

Abenduko sariak

1



Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan
2 liburu

2



Hernaniko eta inguruetako anfibioak eta narrastiak
3 liburu

3



Energia Trantsizioak. Piztu Aldaketa! DVDa
3 ale

4



Arrasateko kooperatibagintzaren erronkak eta dilemak
2 liburuxka

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



IKEA ez da Errepublika duen bakarra



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Gure Errepublikaren Alde manifestua irakurri dut oraintxe. ARGIAk publikatu berri du, aste honetako kontua da. Gure proiektuari bultzada bat gehiago emateko pauso, orain urtebeteko *Darpidegu* kanpainaren jarraipena, ahizpa, anaia, seme edo alaba; nahiago duzun bezala ulertu.

Gure Errepublikaren Alde. Erreferentzia polita prozesu korapilatsuan indartsu bezain irribarretsu eta ilusioz herri proiektu berri bat eraiki nahian dabilzan lagun kataluniarrei. Gure herrian ere bat baino gehiago izango da gure errepublikarekin ametsetan bere buruari hamaika galdera egin dizkiona: zein izango da gure bandera? Zein gure ereserkia? Nola egongo dira antolatuta gure herrialdeak? Eta gure finantziario sistema zein izango da? Eta abar eta abar. Euskal Herriaren independentzia. Hitz potoloak oso. Eta gure esku... egongo da, baina urrun ikusten dut oraingoz.

Baina helburu potoloena lortu bitartean ezer ez? Ez. Lan egin dezakegu (eta egin nahi dugu) herri ikuspegiarekin;

herri justuago eta arduratsuago bat eraikitzen lagundu. ARGIAk bide horretan pausoak ematen jarraitu gura du bere filosofiari eutsiz: Txikitik eragiten. Bere esku dagoena modurik kontzienteen egiten, komunitate ahalik eta zabalena osatzen eta eurekin ideiak eta asmoak partekatzen. Horixe da, azken batean, irakurri berri dudana manifestuaren muina. Jarrai dezagun gure errepublikaren alde urratsak ematen. Egin dezagun amets errepublika txiki honen etorkizunarekin, eta egin diezazkiogun hamaika galdera gure buruari baldintza hipotetikorik gabe, agian gure txikian baldintza errealek balio dezake.

Egin dezagun elkarrekin amets, eta jarrai dezagun indartzen indartzen gaituena. Bakoitzak bere alea jartzen du lurralde honetan, ahal duena, eta behar duena jaso. Komunitateak indartzen du ARGIA, komunitatean sinesten dugu, eta komunitateak proiektuan sinesten delako gara sinesgarriago.

Baloreetan oinarritutako kazetaritzak zerbait eraikitzen du. Hurrengo harria gurekin batera jarri nahi? ■



#GureErrepublika sarean

Asier Iturralde

@aldatsa

#GureErrepublikan gaur [abenduren 6an] laneguna da. Egin zaitez ARGIAkoa.

birasuegi #Koop #ESE

@birasuegi

Gaur [abenduren 6a] guretzat #Eustakhanov egun horietako bat da #GureErrepublika



Iñaki Kasares

@ikasares

Nik #GureErrepublika irudikatzen dudanean, @cupnacional-ek lez, #softwarelibre-ez irudikatzen dut alor guztietan, baita hezkuntzan ere, #HezkuntzanEreLibrezale-ko lagunak sustatzen ari diren bidetik.



Mila esker pailazoei

Abenduaren 2 arratsaldean jendez betez Usurbilgo kiroldegia bi bider, ARGIAren alde Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eskaintako bi emanaldietan. Argazkian, ARGIAko lankideekin.

BALMASEDAKO JUDUENTZAT **GAITZ** ERDI



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Balmaseda, 1483. Herriko kontzejuak, ordenantza baten bidez, bertan auzotzea eta balmasedarrekin ezkontzea debekatu zien juduei. Juduak mende bat lehenago iritsi ziren herrira eta Kale Zaharreko hamahiru etxetan bizi ziren. Balmasedak 1.000 biztanle inguru zituen orduan eta juduak 50 bat ziren. Ez dirudi kopuru handia, baina XV. mendearen erdialdean Balmasedakoa euskal lurraldeko bigarren judutegi garrantzitsuenaren ondoren.

Handik hiru urtera, 1486ko urtarrilean, juduek debekuei muzin egin izana aitzakia, kontzejuak haiek herritik botatzea erabaki zuen eta, hainbat gizon armatuk, Pedro Sanchez Terreros alkatea buru, indarrez betearazi zuten erabakia. Juduek ihes egin zuten eta gehienek Villasana de Mena (Burgos) herrian hartu zuten babesa. Urte berean Gernikako Batzarrean gaia eztabaidatu zuten, eta Haron juduen ordezkariak juduak Balmasedatik "betirako urruntzea" onartu zuen, ziurrenik une horretan beste aukerarik ez zuelako.

Baina juduek Errege-erregina Katolikoengana ere jo zuten konponbide eske, eta haien erantzuna 1488an jaso zuten. Gutun bat bidali zioten herriko kontzejuari, juduak atzera bertan onar zitzan eskatuz. Errege-azutegiak, gainera, bitartekari bat izendatu zuen eskaera betetzeko: Lope García de Chinchilla lizentziatua.



Balmasedarrek ez zieten itzultzeko baimenik eman, baina, gutxienez, negoziatzeko prest agertu ziren. Eta, azkenean, itxuraz Chinchillaren ahaleginei esker, juduek Balmasedan zituzten ondasunak tasatzea eta ezarritako balio horiek ordura arteko jabeen dirutan ordaintzea adostu zuten. Horrenbestez, juduak Balmasedatik egotzi zituzten, baina behintzat ez zituzten esku hutsik bota, Errege-erregina Katolikoek bitartekaritzari esker.

Kontua da handik lau urtera agintari berberak, Elisabet I.a Gaztelakoak eta

'Juduak Espainiatik egozteak', Emilio Sala, 1889. Errege-erregina Katolikoek 1492an eman zuten juduak egozteko agindua, Granadako ediktua sinatuta. Ordurako Balmasedan ez zen judurik.

Fernando II.a Aragoiakoak, erresumako judu guztiak egozteak erabaki zutela. 1492ko martxoaren 31n Granadako ediktua sinatu zuten eta maiatzaren lehenean jarri zen indarrean. Eta ez zen negoziatzarrik izan: juduek inolako ondasunik eta eskubiderik gabe alde egin behar izan zuten. ■



NEW YORKEKO HISTORIA NATURELEKO MUSEOA

Neandertalen esku traketsak

Neandertalgo gizakiek utzitako aztarnategietan arte adierazpide eta harrizko tresna landu gutxi aurkitu dira, denbora luzez haien garaikide izan ziren Cromagnongo gizakiek utzitakoekin alderatuta. Orain arte, hominido haien ustezko urritasun kognitibo eta sinbolikoarekin lotu izan da hori. Baina Madrilgo Complutense Unibertsitateko ikerlan batek

arrazoi mekanikoagoa eman du. Eskulan zehatz eta finak egiteko hatzek zortzi posizio hartu behar dituzte, eta horietatik seik estres mekaniko handia eragiten zieten neandertalei. Neandertalen eta egungo gizakion eskuak oso-oso antzekoak dira, baina falange laburxeagoak zituzten haiek, eta ñabardura hori funtsezkoa izan zen batzuen eta besteen etorkizunean. ■



Eider Rodriguez



Eñaut Elorrieta



Beatriz Zabalondo



Eneko Sagardoi



Miren Amuriza



Olatz Osa



Amelia Barquin



Kike Amonariz



Zuriñe Hidalgo



Iñaki Goizelaia

Geroa zugar: geure mundua kontatzeko

Izan **berria**laguna
[Berria.eus/geroazugan](https://berria.eus/geroazugan)



berria
#BERRIAKTS

Martin Bidaur, idazlea

“Ez dagoena bilatzea baino, dagoenetik eraikitzen saiatzea gelditzen zaigu”

Itzulera argitaratu du Martin Bidaurrek, azken hiru urteotan idatzitako poema solteei hari bat emanaz. Haurtzaroko haustura baten ondoren, bere buruaren bila dabilen norbait ageri da liburuko bost ataletan zehar. Liburuaz ez ezik, ITU bandaz, bere belaunaldiaz, argitaletxeaz eta beste hainbat kontuz ere mintzatu gara.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Zapalduak zituen lehendik euskal literaturaren larre-soroak, baina lehen liburua argitaratzeari darion zera sinboliko hori medio, *Itzulera* poemategiarekin atera da ofizialki plazara Martin Bidaur. Orain hiru urte Parisen zela idatzi zituen liburuko poema zaharrenak. Materiala pilatu ahala, literatur lehiaketa batzuetan saiatu zen, zorte handirik gabe. “Eskuartean daukadan honek zerbaitetarako balio al du”, galdetzen zion bere buruari, “merezi ote du idazten jarraitzeak?”. Trantze horretan zela, gertukoek animatu zuten poemak Susa argitaletxera bidaltzera. Durangoko Azokako egun batez, Gorka Arrese editoreak bizkarretik heldu eta bota zion: “Zer, liburua atera beharko diagu, ala?”. Eta lanean hasi ziren, ale solteei osotasun bat eman nahian, liburuaren egitura pixkanaka osatu arte. Argitaratu du, jaso ditu kritikak –onak, orain artekoak–, eta ari da elkarriketak ematen. “Puntu bat iristen da diozuna: honaino. Ez daukat liburuaz ezer gehiago esatekorik”. Garaiz harrapatu du, zorionez.

Hautsitako souvenir bat atalarekin hasten da liburua. Haurtzaroko gertakari batek erabat baldintzatzen du *ni poetikoaren* bizitza, zerbait hausten zaio hor, eta geroztik bere buruaren bila dabil.

Atal guztiak daude bere momentuan kontatuta, lehen atala izan ezik. Atzera begiratu bat da atal hori, edo hobeto esanda, oroitzapen saiakera bat. Haurtzaroan zentratzen da, baina ez da haurtzarotik kontatutako zerbait. Galdera bat dago atzean: nor naiz ni? Zerk egiten nau naizen bezalakoa? Atzera begiratzeko duzu, are, orainaldira, eta ohartzeko zara ez daukazula tresnarik egoera kudeatzeko. Beraz, irteera faltsu bat topatzen duzu: ihes egitea. Kasu honetan, Parisera ihesa.

Pariserako bidaia baino lehenago ere ageri da ihesa, mundutik bakartzeko joera gisara.

Bai, noski. Ihesa Parisen gauzatzen da, baina bigarren ataleko *–Itxaronaldia–* poema guztietan ageri da. Zeri itxaroten ari da? Parisera egin behar duen ihes horren zain dago.

Ihes definitiboaren zain dago.

Ustez bai. Bi gauza nahasten dira hor. Itxaroten ari den tokian ezin du egon. Orduan, aukeretako bat da haurtzaroan hautsi zaiona berreraikitzea joatea non-baitera, edo dena atzean utzita berdin-berdin ihes egitea. Biak nahasten dira atal horretan. Bi ihesak ihes bera dira.

Ager zitekeen lilurazko Paris bat. Idazle gazte bat hiri literario idealizatura ihesi.

Gaur egun Amsterdam litzateke gehiago (barrez).

Ez da hiri horren arrastorik sumatzen.

Parisko lehen poematik ageri da halako depresio bat, are, epigrafetik bertatik *–Ezleku kolosal sentitzen dut hiri hau–*. Zentzu horretan, hiria ez dago batere idealizaturik. Parisko tristura idealizatzen du, beste ezer baino gehiago.

Etorkizuna galtzea poemak dio: “Atzean utzitako / zerbaiten bila / etorri nintzen / eta batzuetan hobe da / atzean utzitakoa- ren bila / ez itzultzea”. Ohartzeko da Pariserako zituen asmoak ez direla gauzatu.



Are, ez zirela errealak. Hor bada-
go frustrazio bat: nahiko hasieratik
galtzen ditu pretentsio guztiak, bai-
na amaieran erabat galtzen dira. Alde
batera uzten du ihesa. Eta itzulerako
trenarekin bukatzen da atala. “Agian
ekibokatu egin naiz”.

**Parisko itzulerara arte hari kronologiko
garbi bat sumatzen da. Azken bi atalak
lausoagoak dira, alde horretatik.**

Uharteak atalaren funtsean beldur bat
dago: eszenategi berrian ez dadila Pa-
riskoa errepikatu. Horrek bereizten
du azken ataletik –*Hutsuneak oinorde-
tza*–, ze hor ja ageri da esperantza izpi
bat, gainditu nahi bat, tonuak iluna eta
depresiboa izaten jarraitzen duen arren.

**Azken ataleko epigrafeak hala dio: “Inoiz
galdu dudun / ondasunik preziatuena /
da neure burua”.**

Une batean diozu: “*Xaukena xauk*”. Ez
dagoena bilatzea baino, dagoenetik
eraikitzen saiatzea gelditzen zaigu. Nor-
bere burua onartzea, eta gauza horiek
guztiak. Eta konturatzea agian ez dela

zerbait falta, eta falta baldin bada, hu-
tsune horrek nola eragiten digun azter-
tzea. Pentsatu nahi dut ageri dela gai
horien inguruko jarrera berri bat.

**Nola osatzen dituzu poemak? Zein da
prozesua?**

Denetarik dago. Badaude momentuko
inpresioak, koadernoan edo mugiko-
rrean apuntatutakoak, gero hortik tira-
ka poemak atera direnak. Badaude ka-
lean noala bururatuko esaldiak, bueltak
eman eta eman, etxera iristerako poe-
ma bihurtutakoak. Eta badaude, bai-
ta ere, ordenagailuaren aurrean eseri
eta ezerezetik egindako saiakerak ere.
Gero, noski, poema guztiak daude behin
eta berriro idatzita, irakurrita, zuzen-
duta... nahiz eta eskuizkribuan poema
desberdinak egon, bukaeran dena ber-
dintzen da.

**Oro har, nahiko poema soilak iruditu zaiz-
kit. Apaingarri gutxikoak, funtsezkoa
doazenak. Hartu diot, adibidez, Jon Beni-
toren *Bulkada*-ren aire bat.**

Ohore bat da (barrez). Egia da poemotan

kentzeko joera ageri dela. Gero horrek
ekartzen du zailagoak direla ulertzeko,
baina jokoa ematen du iradokitzeko.

**Era berean, trikimailu gutxiko poemak
dira. Artifiziorik apenas dagoen.**

Poemak ez dira autokontzienteak. Poe-
ma bat idatzi aurretik, asko jota, diot:
“Saiatuko naiz ahapaldi bakoitza hiru
lerrokoa egiten”. Egiturari buruzko era-
bakiak hartzen ditut aurrez, izatekotan.
Gainontzean, gehiago nabil plazer este-
tikoaren bila, jakin nahirik zerk eragiten
didan zerbait. Modu batera idatzita da-
goen zerbait beste modu batera idazten
saiatzen naiz.

**Ezagutzen zintugun liburu hau argitaratu
aurretik ere. Hasieratik zara ITU bandako
kide. Zer topatu duzu han?**

Bilatutako kontua izan zen. Oinarrian,
bazegoen literaturzaletasuna bakarda-
dean bizitzetik atera nahi bat. Nahi edo
ez nahi, puntu batean literatura ere jar-
duera soziala da. Irakurtzea eta idaztea
gustatzen bazaizu, pentsatzen eta sen-
titzen duzuna kanporatu nahi baduzu,
zure maila bereko jendearekin elkarba-
natu nahi baduzu... ITU bezalako zerbait
sortzea ederra izan da. Lagun talde bat
gara, azkenean.

Eskola funtzioa ere izango du, noski.

Horixe baietz. Gero kontua da zer den
nahiko genukeena eta zer den errealita-
tea. Denboraren zati handiena aldizka-
riak kentzen digu, eta tarte gutxi uzten
digu beste kontuez hitz egiteko. Testuak
elkarbanatuz, whatsappetik eztabaida-
tuz... Nik uste badagoela elkar eragite
bat. Hala ere, ITU bandaren baitan oso
estilo desberdinak daude, pentsatzeko
moduak ere oso desberdinak dira. Ados-
tasun batzuetara iristen gara, baina ez
daukagu zertan.

**Bistakoa da hori. Lekore aldizkarian oso
tonu desberdinak sumatzen dira: bada-
go, batetik, editorialean eta abar ageri
den estilo satiriko-zirikatzaille bat; eta,
bestalde, antzematen da hizkera “luba-
kiar” bat ere. Liburu honetako poema ba-
tean ere ageri da Lubaki bandaren “ber-
tsio zombie bat” egiteko bilera bat.**

Bai, oso literalki. ITU banda sortu au-
rretik, izan zen huts egindako saiakera
bat. Euskalduna tabernan elkartu ginen
hainbat lagun. Erreferentziak ziren Lu-
baki eta Vladimir –ez dakit azken hori

bandatzat hartu ote daitekeen, baina Zaurutzen gauza batzuk egin zituzten, fanzinea eta abar-. Eta Susa ere bai, noski, oso garrantzitsua. Bai aldizkaria bera, bai argitaletxea. Susaren testu batzuetan ageri da tonu satiriko hori, futitzen dena apur bat guztiaz. Erreferentziatxo hori badago, eta tonu editoriala bada lotsagabea. Baina esandakoa, literatura ulertzeko modu desberdinak daude. Nik uste dut satirak, ironiak edota zinismoak balio dutela gauza batzuetarako. Balio dute gauza batzuk desprestigiartzeko, posizio hegemonikoak erridikulizatzeko, edo, are, min gehiago emateko. Balio dute indarrarekin jolasteko, indar posizio batzuk erakutsiz edo horiek apurtzen saiatuz. Baina idazkera horrekin ezin zara iritsi beste gauza batzuk eraikitza.

Eta ITU bandak zerbait eraiki nahi du, batez ere?

Ez dauka bokazio bakarra. Eraiki nahi du eta deseraiki nahi du. Literatur sistema guztietan bezala, hemen ere baditugu gure botere harremanak, bere agente hegemoniko eta ez hegemonikoekin. Baina oso sistema berria da hau, eta oso ahula, erraz txikitu daiteke aizkora batekin. Nik uste kontuz ibili behar dela. Gauza asko daude aldatzeko, baina beste asko ari dira aldatzen. Jendea ari da gauza berri eta interesgarriak egiten. Eta hori da bidea, gauzak egitea.

**Belaunaldi askok sortu ditu bere egitura propioak hemen. Zuei pasa zaizue hala-
korik burutik?**

Lekore aldizkaria gure kabuz ateratzen dugu. Liburuaren kasuan, Susakoek aukera eskaini zidaten, eta ez nuen bitan pentsatu -berriz ere onartuko nuke,

» “Satirak, ironiak edota zinismoak balio dute gauza batzuk desprestigiartzeko, posizio hegemonikoak erridikulizatzeko, edo, are, min gehiago emateko. Baina idazkera horrekin ezin zara iritsi beste gauza batzuk eraikitza”

» “Nahi edo ez nahi, puntu batean literatura ere jarduera soziala da. ITU bezalako zerbait sortzea ederra izan da. Lagun talde bat gara”

zalantzarik gabe-. Argitaletxe bat sortzeak zentzua izan dezake, ez da inola ere planteatzen ez dugun zerbait -duela gutxi sortu da, adibidez, Balea Zuria izeneko bat-. Baina galdetu behar da, zertarako? Tresna egokia izan daiteke momentuan ez badaukazu beste modurik zure ahotsa entzun dadin, edo iru-

ditzen zaizulako zure tokia ez dagoela orain arte sortutako egituretan.

Edota argitaletxe bat sortzeak, nola egiten den, eragin dezakeelako astinaldi literario bat, belaunaldi berri bat plazara ateraraziz.

Kontua hori da: ea elkartzen zaren jende batekin euskal literaturaren iraultza egiteko, edo elkartzen zaren egiteko zerbait gustatzen zaizuna. Eta hortik zerbait ateratzen bada ondo, eta bestela ere bai.

Esaidazu ze liburuk eragin dizun azkenaldian.

Liburua idatzi bitartean, asko eragin zidan Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak libreago* egin ninduen poema liburuak. Irakurri nituen, era berean, euskal ipuingintzako pare bat antologia, uste dut bat zela Mari Jose Olaziregik zuzendutako *Mende berrirako ipuinak*. Eta go-goan dut, beste bat aipatzearren, Mariasun Landaren *Festa aldameneko gelan* ere, Parisen girotua hura ere. Irakurri ahala pentsatzen nuen: zenbat denbora igaro den ordutik, eta gauza batzuk ze antzerakoak diren. Baina tira, horiez gain, beste asko esango nizkizuke.

Ba al daukazu ezer eskuartean?

Irakurtzen eta idazten ari naiz, nire kasa. Askatzailea izan da liburua idaztea, ze orain poesia beharrean beste gauza batzuk idazten ari naiz. Beti kosta izan zait fikzio bat idaztea, istorio bat kontatzea... Poemak noizbehinka idatz ditzakezu, baina, liburua bukatuta nuela, estreinakoz, udan oporretan izan naiz ipuinak idazten. Ez dakit ezer aterako den hortik, baina behingoz egin izanagatik oso gustura nago. ■



XABIER LETE.
ELURRA IKUSI DUT
Koldo Izagirreren
antologia bat



TIGRE BATEKIN BIZI
Harkaitz Cano
Maite Gurrutxaga

www.elkarargialetxea.eus

elkar

Jesus Olasagasti

Gizarte baten erretratua

ETXEKOANDREA (1926)

Olioia oihalean. 70 x 50 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Duela 110 urte jaio zen Jesus Olasagasti Irigoien (Donostia, 1907ko abenduaren 20a - Donostia, 1955eko abuztuaren 5a), eta erdi ahaztuta dugu jada. 2007an eskaini zioten erakusketa bat, bere jaioztaren mendeurrenean. Harrezkero, bere erretratuetakoa jendeek ez dute jende askorik ikusi.

Hemeretzi urterekin margotu zuen hemengo koadro hau: inpresionismo osteko joeren eragina nabari du, fauvismoarena esaterako, Matisse dakar gogora, askea da pintzela. Abangoardia zalea izan zen gaztetan, European zehar ibili zen orduko beste artista asko bezala, belakia zen, gustuko zituen artista eta joerak bereganatu zituen.

Jaioterrira bueltan, abangoardia zaletasun horrek Rhin eta Madrid kafetegietako tertulietara eramane zuen, eta ondoren GU elkarte sortzera, beste artista, arkitekto, idazle batzuekin batera. Tartean ziren Juan Cabanas Erauskin eta Jose Manuel Aizpurua. Futuristei gertatu bezala, hauei ere abangoardia zaletasunak faxismoarekin lerratzea ekarri zien.

Afixak egin zituen frankistentzat. Eta paradoxa horretan geratu zen harrapatuta Jesus Olasagasti artista: abangoardiaren aldeko uste zuten mugimendua berehala agertu zen erreakzionario, atzerakoi, edozein berritasun estetikoaren kontrako. Eta gerra ostean, gazteta-ko eraginak eta aldaketa grinak erabat ahaztuta, erretratuak egin zituen bizitzeko, erretratu akademikoak, Donostiako aberatsenak, elizgizonenak, agintarienak.



Enkarguz egiten zuen lana batik bat, eta ito egiten zuen horrek. Alkoholaria emana bizi izan zen azken urteetan. Gazterik hil zen, 48 betetzeke. Bere arte lanagatik baino, ia ezagunagoa da Do-

nostiako arte giroa suspertzen egindako lanagatik eta, batez ere, gerora artista bilakatu ziren gazteei eskolak emateagatik, Bixente Ameztoi tartean, iloba zuena. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Estreinakoa



Igor Estankona

Luis Garderen *Barbaroak* baratzean lan honekin hasi du ibilbidea Balea Zuria argitaletxeak, literatura unibertsaleko irudi eder bezain poetikoa daroan azken zorakeriak. Herman Melvillen balea hura bera ere ideal baten pertsekuzioa ez al zen izan, bada? Sortzaileen artean den Juan Ramon Makusok lerro hauek idatzi orduko esan berri dit irakurleari gogoe-ta eragiteko, ideiak eta eztabaida jorratzeko sortu dutela argialetxea.

Eta esan dit baita ere: "Luis Garderen poemagintza ezaguna da gurean. Bere ahots poetikoa oso iradokitzailea da. Bere poesiak lortzen du poeta batek nahi duena, hau da, irakurlea emozionatzea. Bere tonua lirikoa da, demagogiarik gabekoa, irudi askoz hornitua. Hizkuntzak beragan bat egiten du edukiarekin".


Eta ez zaio arrazoirik falta, hizkuntzaren artisauetarik baita iruindarra. Apaina da liburua, arrandiarik egiten ez duena, balore segurua bilduma bateko estreinako titulua izan dadin. Gardek poema liburu bat dakar oraingoan sano urtsua, kresaltsua: "Nor bait kaian dago zutik goizez goiz,/ bereak dituen izenen eta ahotsen zain". Hein berean desertua dago, nomadak daude, oihana iradokitzen da. Bizitzaren mugetan idatzitako poemak dira asko, ezezagunaren eremukoak. Zerbait berria, zerbait arrotza, zerbait barbaroa deskubritzen dugunean

Barbaroak baratzean

LUIS GARDE

Balea Zuria, 2017

Luis Garde Iriarte idazlea
(Iruñea, 1961).



egiten dugun "beraiek" eta "gu" binomioa de-segin gura luketenak uneka: "Zakur hori baten letaginek/ kristal likidoaren beste aldea dute marrazten" edo "zutiarazi ditu/ aitzinean dirdirka ari den plasmako pantaila beroa/ zeharkatzeko irrikak".

Dena den, Garderen irudi eta eskenato-ki horiek guztiek beti ez dute lortzen mezua helarazterik. Ez da liburu bat borobila. *Barbaroak baratzean* batzuetan efektista da zio garbirik gabe. Beste batzuetan soila da, baina poesia soiletik urrun. Liburuko pieza asko narrazio laburrak dira eta, nire ustez, hausnarketok eten egiten dute poesiaren joana zeharo. Beste pieza askok –deskriptiboak, sinbolis-tak– ezin jakin helburu estetiko hutsa duten, edo esanahi gorderen bat. Askotan liburuek esan ez baina hitzerdika esan dezakete. Kasu honetan, ordea, zaila da estiloaz harago pultsio bat kausitzea, eta zail are kritika honetarako argumenturik bilatzea, sentsazio gazi-gozo honetaz harago. ■

» KONTZERTUA

‘Don Pasquale’ deskafeinatua



Montse Auzmendi

Benetan zorte txarreko emanaldia izan zen OLBERen abonuko bigarren titulua. Gauza gutxi atera ziren zuzen-zuzen. Hasteko, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren greba. Azken momenturaino espero zen konponketa bat operaren emanaldiak behar bezala egiteko. Baina ez, ostiralean Oriol Roche, orkestraren zuzendari orokorrak, jakinarazi zion OLBERi greba-deialdiak aurrera jarraitzen zuela. Gauzak horrela, Juan Carlos Matellanesek, OLBERen lehendakariak, erabaki zuen emanaldia egitea pianoaren laguntzarekin. Ezin dugu ukatu James Vaughan maisuaren laguntza bikaina izan zela, malgua, ezin hobea, baina Donizetti-ren musikak taxu gehiago behar du. Tristeia izan zen hain dotore prestatutako muntaia erabat koloregabe gelditzea. Donizetti sofistikatu da, dentsoa, baina *Don Pasquale* hau erabat zurbila iritsi zitzaigun.

Bestalde, aldaketa bat baino gehiago egon zen bakarlarien artean. Aurreikusita zegoen Carlos Chausson baxu-baritonoak ezin izan zuen abestu, faringitisak jota, eta haren ordez, Paolo Bordogna egin zuen rol protagonista. Baxu milandarrak benetan ondo bete zuen bere papera, eta meritu handikoa izan zen, kontuan harturik *in extremis* egin zela aldaketa.

Ernestoren rolean ere mugimenduak egon ziren. Hasiera batean Paolo Fanale tenore italiarrak egon behar zuen gure artean, baina

Donizettiren Don Pasquale OPERAREN LAGUNEN BILBOKO ELKARTEA

Zuzendaria: Roberto Abbado.
Bakarlariak: Paolo Bordogna
(baxu-baritonoa).
Santiago Ballerini (tenorea).
Jessica Pratt (sopranoa).
Javier Franco (baritonoa).
Bilboko Euskalduna Jauregia.
Azaroaren 18a.

*Bilboko Euskalduna Jauregia.
Donizettiren ‘Don Pasquale’
bertan jokatu zen,
baina orkestra barik.*

giltzurdinen gaixotasun batengatik azkenean Santiago Ballerini argentinarrak egin zuen papera. Eta oso sorpresa ona izan zen. Ez du ahots handia, baina bai oso ondo tinbratua eta adierazkorra.

Huts egin ez ziguna Jessica Pratt soprano britainiarra izan zen. Nabardura askoko Norina egin zuen: batzuetan inuzentea eta beste batzuetan manipulatzailea, aise mugitu zen interpretazioan eta arlo bokalean.

Jonathan Miller eszena zuzendariak panpin etxe moduko eszenografia diseinatu zuen. Pertsonaia guztiak gora eta behera, giro korapilatsua irudikatu zuen, oso egokia eta bisuala. Hala ere, eszenografiaren asmaketa, piano jolearen bikaintasuna eta Roberto Abbadoaren zuzendaritza doia ez ziren nahikoa izan desastre txikia konpontzeko. Pena. ■



Imajinatu ezin dena egiteaz

2017KO DURANGOKO AZOKA

Non: Durangon, Landako gunean.
Noiz: 2017ko abenduaren 6tik 10era.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIA: DURANGOKO AZOKA



Geroz eta konbentzituago nago ekintzek irekitzen dizkiotela bide berriak irudimenari eta ez alderantziz; geroz eta zailagoa iruditzen zait norbaitek teoria brillante bat formulatzea eta, ideiarekin distirak argituta, herritarrak ekintzara pasatzea –edo, modako hitza erabiltzeagatik, “aktibatzea”–.

Durangoko Azokaren azken urteetako ibilbideak ere ikuspegi hori indartzen duelakoan nago: aurtengo edizioaren lehen egunean ekarri dute gogora Aho-tseneak hamar urte bete dituela. Eta orain zail egiten da imajinatzea Azoka hura, artistek beren lanak erakusteko espaziorik gabea, bisitariari eduki askoz gutxiago eskaintzen ziona. Orain ezagutzen dugun Azoka hau orduan imajinatzea bezain zaila, gutxi gorabehera.

Doktoreak baditu euskal zerak, baina hamarkada bat atzera egin, eta ez dut aurkitzen formulazio teoriko handirik, plan estrategiko instituzionalik eta marketin kanpaina garestirik hain garran-

tzitsua bihurtu den ekimena martxan jartzeko. Benetan funtzionatzen bukatu duten beste ekimen asko bezala, materialki egitea izan zen kontua, probatzen hastea, funtzionatzen bazuen segitzea. Bidean izan dira kirrinki-karrankak, asmatu da identifikatzen haziminak zirela, eta horri esker 2017ko edizio hau bukatzera doanean, “liburu eta disko azoka” zen hura antzaldatuta dago, bisitaria kontsumitzaile ez ezik, kultura baten parte aktibo izatera gonbidatzen duen lurralde bihurtua.

Eta egin izan ez balute? Zer izango zen Azoka gaur egun, duela hamar urteko apusturik gabe? Fikzio-ariketak egitea da noski, baina ez dut uste gehiegikeria denik esatea, krisi ekonomikoaren urte bortitzenak tartean izanda, galdu dena baino puskaz gehiago galduko zela bidean.

Dena ez da ospakizuna haatik: Aho-tseneak lehen hamarraldia ospatu duen egun berean, oasi honen berotan, Euskal



Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) aurkeztu du txosten bat, *Argazki hau euskaraz mintzo da* tituluduna, zeinak euskarazko antzerkiaren egoeraren analisi kritikoa eskaini nahi dion irakurleari. Elkarteak nabarmendu du instituzioen aldetik jasotzen duen laguntza eskasa, baita Euskal Herriko hiriburuetan euskaraz egiten den teatroak jasaten duen bazterketa ere, beste zenbait aferen artean. Eta egoera oso paradoxikoa da, izan ere, euskarazko antzerkia azken urteetan bizitzen ari den loraldiarekin kontrastean –obren kalitatea eta publikoaren erantzuna ikusita fenomeno nabarmena da–, “krisi sakonean” dagoela aitortu du publikoki EHAZEK.

Eta horren aurrean zerbait egiten ez bada? Ez dut hasi nahi hamar urte barru egoera zenbat okertua izango den asmatzeko fikzio-ariketak egiten. Egiten hastea baita kontua, hemen eta orain, etorkizuna izan dadin orain imajinatu ezin dugun bezalakoa. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta David Bassak, TV3ko albistegietako buruak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

8		4	5	2			6	3
				8	1			4
	5		6		4		8	
9		8		7		4		
		7				8		
		5		3		7		6
	7		8		6		5	
3			2	5				
5	9			4	3	2		8

				8	6	4		
	7		2		5			3
2	6							
		2		6			3	
	8	9				7	4	
	1		4		5			
						1	4	
1			9	2		5		
		3	1	5				

Azkenak

Koka ezazu erantzun bakoitza bere tokian. Koloreztatutako laukietan egokitutako hizkiak batuz Gipuzkoako bi mendiren izenak lortuko dituzu.

A Banaketa, partiketa

--	--	--	--	--	--	--	--

Goraldia

--	--	--	--	--	--	--	--

Malgu

--	--	--	--	--	--	--	--

Nahitaez

--	--	--	--	--	--	--	--

Azoka

--	--	--	--	--	--	--	--

B Leherkari

--	--	--	--	--	--	--	--

Esate baterako

--	--	--	--	--	--	--	--

Herriaren Defendatzaile

--	--	--	--	--	--	--	--

Itsasoan barneratzen den lur zati

--	--	--	--	--	--	--	--

Aldizkari

--	--	--	--	--	--	--	--

Ebazpenak

8	2	3	1	5	4	6	9	7
1	4	6	9	7	2	3	5	8
7	9	5	6	3	8	2	1	4
6	1	7	3	4	9	5	8	2
3	8	9	5	2	1	7	4	6
4	5	2	8	6	7	9	3	1
9	7	4	2	1	5	8	6	3
2	6	8	4	9	3	1	7	5
9	7	4	2	1	5	8	6	3
8	1	4	5	2	7	9	6	3

Puzzlea: "Españiako nazionalismoaren eta zentralismoaren diana izan da betidanik katalan hutsuz funtzionatu eta kataluniako begitradu duen kate publikoa".

Azkenak: A: Zutiketa, Gorakada, Bihurkor, Derrigor, Merkata. B: Lehergai, Adibidez, Ararteko, Lurmutur, Agerkari. (AIZKORRI)

Eneko Aierbe. Ekologistas Martxaneko arrantza arduraduna



Itsas zientzietan lizentziatua eta duela urtebetetik Ekologistak Martxan taldeko Espainiako Estatuko arrantza arduraduna da Eneko Aierbe donostiarra. Arrantza jasangarria lortzeko eta Europar Batasunak arrainen berreskurapenerako ezarritako epeak betetzeko kanpaina egiten ari da azkenaldion. Egunotan –elkarrizketa hau egin ondoren– Bruselan erabaki diren gehienezko arrantza kopuruek epe horiek baldintzatuko dute.

“Europako arrantza kuotak zientziak diotenaren gainetik erabakitzen dira gehiegitan”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Arrantzaleak kontuan hartuta

“Arrantzaleekin ikuspuntuak trukatzeko saiatzeko gara ahal dugun guztietan. Arrantzale txikiak babesteko aldarria egiten dugu, gure kezka ez delako arrainekiko soilik. Lanpostu kopurua jaitsi da, arrantza ontzi kopurua ere bai, eta gure ikuspuntutik okerreza izan da ontzi txikietan egon dela galera, artisautza arrantza egiten dutenetan. Erritmo kontuak eta ez dituzte garbi ikusten, jatekoa dutelako lehentasun. Etorkizunera begiratu eta ados jarri behar dira batzuetan urruti dauden arrantzale taldeak, horregatik ez da erraza, baina uste dugu etorkizuna hor dagoela. Guztien arteko (administrazio, zientzialari, arrantzale eta GKEak) kudeaketa egokia eginez lor dezakegu etekina natura babestuz”.

Zer da proposatzen duzuen arrantza jasangarria?

Arrantza jasangarria zientzialariek aholkatzen duten neurrian arrantzatzea da. Frogatuta dago ona dela guztiontzat, epe luzera gehiago arrantzatzen uzten duelako. Kantauriko eta Iberiar penintsulako stocken egoera ez da aldatu azken urteotan: erdia era jasangarrian ustiatuta, eta beste erdia gehiegi. Ezagutzen ditugun populazioei buruz ari gara, beste batzuei buruz ez baitago nahikoa daturik neurketa egiteko. Mediterraneoan, aldiz, erabateko arazoa dago, Atlantikoan baino askoz okerrago dago egoera han.

Orduan kuotak murriztea da konponbidea, populazioak berreskura daitezen.

Ez da beti derrigorrez murriztea, zenbait kasutan zientzialariek onartzen baitute gehiago arrantzatu daitekeela. Adibidez, oraintsu egon da Atlantikoko hegazu eta hegalaurrearen kontserbaziorako nazioarteko ICCAT batzordearen bilera eta, hegalaurrearen egoera hobea denez, igoera onartu

dute datozen urteetarako. Atunaren egoera hobetu da azken urteetan, oso maila baxuan egon zelako, baina igoeira guztiak neurritz egin behar dira, aurreko puntura ez itzultzeko. Zigalaren kasuan, aldiz, jasangarritasunerako bidean dago, aurrean, zientzialariek kasu eginda, Kantauri itsasoan ezin izan delako harrapatu.

Nolakoa da arrantzaren egoera Europako uretan?

Arrantza politika bateratua 2014an indarrean sartu zenean ekologistek pozik hartu genuen, zentzudunak ziruditen hainbat hobekuntza zekartzalako. Arrantza jasangarria lortzeko epemuga batzuk ezarri zituen politika hark: 2015erako handinahikeria zirudien baina 2020rako, gure ustez Atlantikoan, Bizkaiko Golkoa barne, egingarria zirudien. Orain ikusten ari gara 2020rako ez garela iritsiko.

Berreskurapena azkartzea eskatzen duzue orduan?

Bai. Europar legediak dio 2020rako bio-



Eneko Aierbe Donostiako portuan.

"Kantauriko eta Iberiar penintsulako arrain stocken egoera ez da aldatu azken urteotan: erdia era jasangarrian ustiatuta, eta beste erdia gehiegi".

masa guztiak gehieneko errendimendu jasangarrira heldu behar direla, baina martxa honetan ez dugu helburua beteko. Helburua populazio guztiak era jasangarrian, etekin handiena lortuz arrantatzeko moduan egotea da. Zorionez badirudi gero eta hobeto goazela, baina ez goaz abiada egokian.

Zer da gehieneko etekin jasangarria?

Oreka puntua litzateke, populazioak gehien non ematen duen jakinda, hor jartzea kuota. Azken batean, arraina baliabide berriztagarria da. Berreskuratzen ari den populazioa heltzen da kopuru batera azkar, baina puntu batera heldu eta gero ez da abiaduraz handiagoz haziko, muga biologikoak daudelako. Itsasoa Aztertze Nazioarteko Kontseiluak (ICES) kalkulatu da, bertan parte hartzen dute AZTIk eta Espainiako Ozeanografia Institutuak (IEO), beste askoren artean. Hainbat datu bildu ondoren gai dira esateko populazioen egoera zein den eta horren arabera noraino arrantzatu daitekeen.

Europak ez du bere legea betetzen orduan?

Arrantza politika bateratuak dio 2015erako eta zenbait salbuespenekin 2020rako bete behar dela gehieneko etekin jasangarria, irizpide horrekin ustiatu behar direla arrain populazio guztiak, baina ikusten ari gara ez dela beteko.

Zer ari dira erabakitzen Bruselan egunotan?

Legeak helburuak ezartzen ditu 2020rako, baina gero urtez urte kopuru zehatzak erabakitzen dira, ministroen kontseiluan. Urtero abenduan erabakitzen da zenbat arrantzatu arrain mota gehienentzat. 28 arrantza ministroak biltzen dira, ateak itxita, eta ez dakigu zer gertatzen den bilera horretan. Gure susmoa da kromo trukea dela. Zientzialariek emandako kopuruetatik gora ibiltzen dira gehiegitan. Adibidez, legatza azken urteotan aholkatutakotik gora arrantzatzen da. Zapoaren kasuan kontrakoa gertatu da: aholkatutakoa bete dute politikariek eta, ondorioz, neurrian harrapatuta, hazten ari da populazioa

eta urtez urte haziz doa kuota. Gure sentazioa da arrantzaren elkarte handiak hor daudela lobby lana egiten, beren interesak babesten. Guk negoziazioak irekiak eta gardenak izatea eskatu dugu, baina ez dute nahi.

Lobby lana egiten dute agerian?

Hainbatetan ikusi ahal izan da bilera horiek egiten zirenean industriaren ordezkariak eraikin barruan zeudela. Urtero agertzen da sare sozialetan eta prentsan ministroa industriaren ordezkariarekin biltzen dela, beraien ikuspuntua ondo ordezkatuta egoten da bilera horietan.

Zuek ere lobby lana egiten duzue, Bruselari eta Madrili begira.

Noski, guk argi diogu politikariengan eta jendearengan eragin nahi dugula. *Como pez en el agua* (Arraina uretan bezala) kanpaina jarri dugu martxan gai hau gizarteratzeko, eta politikariek bildu gara, jasangarritasun helburuei eutsi diezaietela eskatzeko. Legea nahiko ona da eta epean betetzea besterik ez diegu eskatzen. ■



Toti Martinez de Lezeak liburuak sinatzen jarraitzen du Durangoko Azoka bukatu eta hiru egun geroago

Ilara luzeak espero dira abenduaren 13an ere Landako gunean, milaka herritar Durangora joan direlako Toti Martinez de Lezearen azken liburua egileak berak sinatuta eduki ahal izateko. Durangoko Azoka abenduaren 10ean amaitu zen, argitaletxe guztiek euren trasteak jaso dituzte eta betiko lanetara bueltatu dira, baina idazle arabarraren fan klubak etortzen jarraitzen zuenez,

berak han geratzea erabaki du. Beranduegi aitortu dionez, larunbatetik aurrera liburuak sinatzeko beso mekaniko baten laguntza erabili du: "Jendeak ulertzen du ezin ditudala hainbeste milioi liburu sinatu lesionatu gabe", azaldu du. Hurrengo urterako liburu berrian lanean ari ote den galdetu diogunean esan digunez, hori ere beso mekanikoak idatziko dio.

SAREAN ARRANTZATUA

Gasteiztar batek eman du ordena, hilgo dela bertatik kaka eiten ez duena



Euskara marabilli Miribillin



Eiffel dorrea Bilbora eramango dute, ganorazko selfiak egin ahal izateko urtarrileko manifi

Negoiazio hiper-sekretu baten ostean, Sarek eta Parisko Udalak akordioa egin dute Eiffel dorrea Bilbora eramateko urtarrilaren 13ko presoen aldeko manifestaziorako. "Abenduaren 9an frogatu denez espetxeak husteko borrokan garrantzi handikoa da manifestazioetako argazkien atzeko aldean ospe handiko monumentu bat ikustea", azaldu digu Sareko eledun Joxe Motelagak.

Iberdrola dorrea kendu eta haren lekuan paratuko dute Eiffelena. "Iberdrolarena, ba zer nahi duzue esatea, altua da eta hola, baina ez da inondik inora bestea bezain xarmagarria", adierazi du

Sarek bere azken balorazio politikoan. Azkenik, katalan herriari elkartasunezko mezua bidaltzeko aprobetxatu du Motelagak: "Bai, zuek 45.000 elkartu zenituzten Bruselan, baina gure Parisko argazkiak politagoak dira".

EAJk, bere aldetik, urtarrileko mobilizazioarekin bat ez egitea erabaki du ustekabean. "Guk argi adierazi genuen Kremlina Zabalburu erdian ipiniz gero hitz egiten has gintezkeela, baina argi dago herri honetan batzuek ez dutela gura jeltzaleok euren manifestazioetan egotetik", esan digu Sabin Etxeko erantzungailu automatikoak.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com